



# Informazio Ez-finantzarioaren Egoera Matz Erreka, S. Coop. 2024ko ekitaldia





# Edukien aurkibidea

|                                                          |    |
|----------------------------------------------------------|----|
| 1- Aurkezpen gutuna.....                                 | 4  |
| 2- Nor garen .....                                       | 6  |
| Aipamen historiko laburra.....                           | 6  |
| Misioa, Bisioa, Balioak.....                             | 7  |
| Negozioak eta antolaketa .....                           | 8  |
| 3- Erronka estrategikoak eta arriskuen analisia .....    | 10 |
| Erronka estrategikoak .....                              | 10 |
| Klima aldaketari lotutako arriskuak eta aukerak. ....    | 12 |
| Merkatuari lotutako arriskuak.....                       | 15 |
| 4- Kudeaketa eredua .....                                | 15 |
| 5- Materialtasunaren analisia .....                      | 18 |
| Gai materialak zehazteko prozesua.....                   | 18 |
| Gai materialak .....                                     | 18 |
| Komunikazioa interes taldeekin .....                     | 20 |
| Ariketa, kooperatiba barruan.....                        | 22 |
| Materialtasun matrizea (2024) .....                      | 23 |
| 6- Ingurumen gaiei buruzko informazioa .....             | 25 |
| Kutsadura prebenitzeko neurriak.....                     | 25 |
| Produktuari aplikatutako ekonomia zirkularra.....        | 25 |
| Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa.....        | 26 |
| Baliabideen erabilera jasangarria.....                   | 29 |
| Klima aldaketa– Igorpenak .....                          | 31 |
| Eragina biodibertsitatean.....                           | 34 |
| 7- Gizarte gaiei eta pertsonei buruzko informazioa ..... | 35 |
| Enplegua - Ordainsaria.....                              | 36 |
| Lanaren antolaketa.....                                  | 44 |
| Osasuna eta segurtasuna .....                            | 44 |
| Harreman sozialak.....                                   | 46 |
| Prestakuntza.....                                        | 47 |
| Irigarritasuna .....                                     | 48 |
| Euskararen hizkuntza normalizazioa.....                  | 48 |
| Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.....           | 49 |
| 8- Giza Eskubideak errespetatzea .....                   | 50 |
| 9- Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka .....  | 51 |
| 10- Sozietateari buruzko informazioa .....               | 53 |
| Komunitate garapena.....                                 | 54 |
| Azpikontatazioa eta enpresa hornitzaileak .....          | 56 |
| Kontsumitzaileen segurtasuna eta osasuna.....            | 57 |
| 11- Informazio fiskala .....                             | 57 |
| 12- Eranskinak .....                                     | 59 |
| I. Eranskina.- Harremanetarako datuak.....               | 59 |
| II. Eranskina.- Taldeko filialak.....                    | 59 |
| III. Eranskina- 11/2018 Legearen edukien taula .....     | 60 |
| IV. Eranskina- Kode Etikoa .....                         | 77 |

## 1- Aurkezpen gutuna

2024an zehaztu du ERREKAK datozen lau urteetarako plan estrategiko berria: 2025-2028. Plan hau da, hain zuzen, aurreko ekitaldiaren amaieran zehaztu genuen helburua lortzea ahalbidetuko digun tresna, kooperatibako ordezkarien talde zabal eta askotarikoaren parte hartzearekin.

Plan berria hiru erronka estrategikotan egituratzen da: Hazkundera, Errentagarritasuna eta Erakundearen Eraginkortasuna, guztiak ere ERREKA Taldea osatzen duten negozioetarako eta Zerbitzu Korporatiboetarako zeharkako erronkak dira. Datozen hilabeteetan, proposamen estrategiko honetan planteatutako helburuak lortzera bideratutako hainbat proiektu garatuko dira.

Munduko egoera geopolitikoak sortutako ziurgabetasun ekonomikoak eragina izan du gure negozio guztietan, bereziki automobilgintza eta energia berriztagarrien sektorerara bideratutakoetan. Hala eta guztiz ere, kuantitatiboki emaitza positiboekin amaitu dugu ariketa, eta, aldi berean, ERREKA osatzen dugun pertsonen ongizatea lortzeko lan egin dugu barruan.

Hauek izan dira aldi honetako lorpen esanguratsuenetako batzuk:

- Medicalen negozioaren aldeko apustuak DARWIN BIOMED enpresarekin lankidetzak akordio bat egitera eramane gaitu. Horrela, Errekak pertsonen mugikortasuna bermatzeko soluzioen alorrean duen posizioa sendotu, eta adimen artifizialaz eta software aurreratuz hornitutako soluzio mekatroniko berriak etorkizunean garatzeko ingeniariak aktiboak eskuratzen ditu.
- Energia berriztagarrien sektorean lan egiten duen eta itsasoko parke eolikoen proiektuetan espezializatuta dagoen Herbehereetako SEAWAY 7 enpresarekin kontratu bat lortu dugu. Akordio horrekin, gure ekintza esparrua offshore instalazioetara zabaltzea eta horien eraikitzaileekin zuzenean lan egitea lortu dugu, eta, aldi berean, produktu eta zerbitzu eskaintza zabaltzea.
- ISO 27001, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA KUDEATZEKO araudia garatu eta ezarri dugu, erakunde osora iristeko asmoz. Araudi horrek gurea bezalako enpresa batek eskatzen duen segurtasun maila ematen digu; alegia, barne behar eta interesekin konprometitutako enpresa, baina baita gure bezero eta hornitzaileen interesekin konprometitutakoa ere.
- Connected Accessen negozioan lehen aldiz merkaturatu da CONNECT aplikazioa, instalatutako oinezkoentzako sarbide sistemak urrutitik monitorizatzeko aukera emango diguna, gure produktuaren bizitza baliagarria luzatzeko. Horrek ezinbestean ekarriko digu lehenengai kritikoaren kontsumoa murriztea, bai eta era horretan jokatzeko ere, klima aldaketaren arintzearen alde.
- Erakundearen Karbono Azteraren neurketa hiru irismenetan finkatzeaz gain, lehen deskarbonizazio plana zirriboratu da, egungo lege baldintzekin lerrotatuta, eta datozen urteetan garatzen joango da.
- ERREKA ANITZ izena jarri zaio kooperatiba bera gainditzeko duen eta Berdintasuna, Inklusioa, Kontziliazioa eta pareko alderdiak lantzen dituen proiektu sozialari.

Azpimarratzekoak dira, halaber, arlo instituzionalean, kooperatibaren lehendakaritzan egindako aldaketa –Joana Ibarretxek betetzen du orain kargua–, eta, Gerentziarekin batera, Arkaitz Etxezarretak kolektibo osoari eta alderdi interesdunei aurkeztutako 2024ko ekitaldiko jardun ez-finantzarioa.

Dokumentu hau Erreka Taldearen Informazio Ez-finantzarioaren Egoera aurkeztera dator. Matz Errekako Kontseilu Errektoreak erabaki du Informazio Ez-finantzarioaren Egoerari buruzkoa dokumentu bereizi batean formulatzea, nahiz eta Informazio Ez-finantzarioaren Egoerari buruzko edukia Kudeaketa Txosten Bateratuaren parte izan.

Dokumentu honetan jasotako informazio guztia enpresa matrizeari eta Erreka Taldea osatzen duten Mexiko eta Txekiako filialei buruzkoa da. Ez ditugu sartu Txina, Kolonbia eta Dominikar Errepublikako filialak, eta, hala, urteko kontuen bateratze perimetroari eutsi diogu.

Dokumentuak Matz Erreka Taldearen bilakaera, emaitzak eta egoera ulertzeko behar den informazioa jasotzen du, baita bere jarduerak enpresa jasangarritasunaren gai garrantzitsuekiko duen eragina ere.

Joana Ibarretxe (lehendakaria) eta Arkaitz Etxezarreta (zuzendari nagusia)

## 2- Nor garen

### Aipamen historiko laburra

Erreka Taldea 1961. urtean sortu zen, lan elkartuko kooperatiba bat eratuta.

Bere lehen negozio unitatea planoetan oinarrituta torlojuak fabrikatzea izan zen, eta, denborarekin, finkatzeko elementu bihurtu zen, horrekin lotutako ingeniariatzako soluzioen bidez.

Gero, 1967an, injekzioko plastikoen negozioa sortu zen, automobilgintzarako pieza tekniko funtzionaletan oso espezializatutakoa, baina gaur egun, etxetresna elektrikoetarako eta medikuntzarako ere lan egiten du.

1983an, Sarbide Automatikoaren negozioa txertatu zen. Bertan, oinezkoentzako ate automatikoak diseinatu, fabrikatu eta instalatzen dira, bai eta ibilgailuen sarbideak automatizatzeko behar diren elementu guztiak merkaturatu ere.

Mondragon Korporazioko kide da Erreka, eta hango osagaien dibisioan integratuta dago.

Kooperatibaren egoitza nagusia Antzuolan (Gipuzkoa) dago; ekoizpen zentro nagusiak, berriz, Antzuolan eta Bergaran (Gipuzkoa), eta filial nagusiak Mexikon, Txekian eta Txinan. Espainiako zein nazioarteko merkataritza ordezkari batzuk ere baditu (ikus erreferentziak 2. Eranskinean).

Sortu zenetik gaur egun arte, Erreka Taldeak teknologia berrietara eta merkatuaren eskaeretara egokitutako bilakaera izan du. Kalitatea, ingurumena eta lan arriskuen prebentzioa ziurtatzeko sistemei interes handia eman izan die, eta, azken urteetan, berrikuntza eta zibersegurtasun alderdiak txertatu ditu bere kudeaketa lanetan, zaintza berezia eginez eta hainbat lege baldintza betez.

2024. urtean, industria pabiloi berria eraikitzen amaitu dugu, eta 2025eko martxoan lanean hastea aurreikusita dago. Eraikin honen helburua da lotura elementuak fabrikatzeko lerro berri bat jartzea, eta estaldura prozesuan teknologia berritzaileak txertatzea. Horri guztiari esker, etorkizun hurbilean ekoizpen prozesu osoa kokapen berean integratu ahal izango da, eta horrek eraginkortasun handiagoa, kostu txikiagoa eta BEG murrizketa ekarriko ditu.



## Misioa, Bisioa, Balioak

Gure jarduera guztia eta hartutako erabakiak koherenteak dira, eta alderdi hauetan oinarritzen dira.

Hauxe da ERREKAren Bisioa:

MARKA LIDERRA IZATEA etorkizuneko sektoreetan, JASANGARRITASUNAREKIN ARDURATSUA, PRESTATUTAKO PERTSONA AUSARTEK OSATUA eta KOOPERATIBA gisa batzen gaituzten BALIOEKIN.

Gure Misioa, berriz:

Soluzio ugari eta berritzaileak fabrikatzen eta hornitzen ditugu, batez ere energia berdearen, mugikortasunaren eta osasunaren arloetan, kanpoko eragileekin lankidetzan, ingurunearen garapen jasangarria bultzatuz.

Gure ustez, balio horiek izan nahi dugun moduari erantzuten diote, bai eta gure nortasun ezaugarriak izatea nahi genukeen horri ere.

Eraldatzeko gaitasuna  
Erantzukizuna  
Konfiantza  
Talde lana  
Jarraitutasuna  
Ausardia



Eta Helburu bat, gure izateko arrazoia.

Aberastasuna modu jasangarrian sortzea pertsonen ongizaterako, etorkizun hobearekin lagunduz.

## Negozioak eta antolaketa

Erreakak, gaur egun, 4 Negozio Unitate (Smart Fastening, Connected Access, Plastics eta Medical) eta Zerbitzu Korporatiboetako unitate bat (Finantzak, Pertsonen Kudeaketa, Informazio eta Komunikazio Teknologia, Kudeaketa eta Berrikuntza Sistema irekiak) ditu.

### SMART FASTENING:

- Maila handiko finkapena, fidagarritasuna eta segurtasuna.
- Lotura kritikoetarako monitorizazio sistemak.
- Ingeniaritza zerbitzuak tokian bertan.

### CONNECTED ACCESS

- Sarrerak automatizatzeko sistemak diseinatu, fabrikatu eta instalatzea.
- Sarbideak kudeatzea eta kontrolatzea.

### PLASTICS

- Konplexutasun handiko plastikozko pieza teknikoak garatzea eta ekoiztea.
- Contract Manufacturinga, eskakizun handiko sektoreetan, hala nola automobilgintzan.

### MEDICAL

- Polimeroko osagaien Contract Manufacturinga, gailu medikoetarako eta in vitro diagnostikoko testetarako.



Ikuspegi estrategiko berriaren eta CARE negozioaren garrantzia pixkanaka galtzearen ondorioz, aurten sektore horren alde egiten jarraitzea erabaki da, baina aipatutako negozioari uko eginez, eta test eta in vitro diagnostikorako gailuen mugikortasunarekin eta fabrikazioarekin lotutakoak gure produktu portfolioan integratzeko apustua eginez.


Gaur egun, Plasticen negozioan integratuta dago Medical, baina Errekak osasun sektorearen alde egindako apustu sendoari esker, plan estrategiko berriak hartzen duen epean zehar, negozio propio baten garrantzia hartzea espero da.

Gaur egun, 266 langile inguru ditu Espainian, eta filialak kontuan hartuz gero, 467, hiru kokapen nagusitan banatuta: Antzuola/Bergara, Mexiko eta Txekia.

## ERREKAren antolaketa ereduaren oinarriak

Antolaketa eredu arin baterantz eraldatzen ari da ERREKA, berrikuntzan oinarrituta, digitalizazioa sustatzeko, aukerak modu aktiboan bereganatzeko eta proiektu berriak garatzeko, baita kudeatzen duen informazioaren segurtasuna bermatzeko ere, bai norberarena, bai bere hornitzaile eta bezeroena, eta garapen jasangarria sustatzeko, inguruneke baldintzak errespetatuz. Horretarako, lidergo sendoa eta lerrokatua du, baita helburu sinesgarria eta erakunde osoan partekatua ere.

Bere eragiketen ezagutza bildu/integratu, eta kudeatzen duen enpresa da.



Bere aktibo garrantzitsuena –langileak– garatu, zaindu eta motibatzen dituen enpresa.

Aldaketa modu aktiboan ulertzen duen eta hori bultzatzen duen enpresa da (ez modu errektiboan).



Arriskua kudeatzen duen enpresa, ziurgabetasunari konponbidea bilatzen beti.

### 3- Erronka estrategikoak eta arriskuen analisisa

2024ko bigarren sei hilekoan 2025-2028ko Plan Estrategikoa garatzera eramango gintuen hausnarketa prozesua hasi zen. Horretarako, lan plan bat diseinatu zen, lkei aholkularitza enpresarekin batera. Plan estrategiko honetako parte hartzea hainbat taldetan oinarrituta egituratu da, eta ERREKako negozio eta esparru guztietako pertsonak txertatu dira.

Plan estrategiko hau egiteko, zeregin hauek gauzatu dira: alderdi interesdunei kontsultak egin zaizkie; merkatu proiektzioak kontuan hartu dira; eta egungo eta balizko bezeroak, hornitzaileak eta benchmarking azterketak aztertu dira, egin beharreko lana definitzeko abiapuntu egoera bistaratzen lagundu digutenak.

#### Erronka estrategikoak

Abiapuntuko diagnostikoa egin ondoren, hiru ildo estrategiko nagusi definitu dira: Hazkundera, Errentagarritasuna eta Antolaketa, guztiak ere zeharkako ildo estrategikoak negozio guztientzat eta Errekako Zerbitzu Zentralentzat.



#### Hazkundera

- Negozio bolumena handitzea, bai egungo bezeroetan bai bezero potentzialetan.
- Nazioarteko merkatuan haztea.
- Balio proposamena handitzea, eskaintza dibertsifikatuz, eta produktu eta zerbitzu berriak garatuz.
- Hazkundera modu organikoan zein ez-organikoan egitea aurreikusten da.

#### Errentagarritasuna

- Teknologia eraginkorrago berriak integratzea.
- Gure produktuei balio erantsia eta funtzionaltasuna ematea.
- Produktu digitalak garatzea.
- Kontu handiak lortzea.

### Antolaketa

- Hainbat negozio unitatetako zeharkako funtzioak sustatzea.
- Talde gisa zerbitzu zentralen funtzio korporatiboak bultzatzea.
- Filialek autonomia maila jakin bat izatea, baina beti matrizearen koordinazio bakarraren pean.
- Marka irudiaren eta kanpoko komunikazio koordinatuaren politika garatzea.

### Plan estrategikoaren jarraipena.

ERREKAK uste du plan estrategiko honek arrakasta izateko giltzarrietako bat dela, hain zuzen, hiru ildo estrategiko nagusiei lotutako ekintza planen hedapena eta jarraipena egitea. Bai kooperatibako Gerentziak bai Kontseilu Errektoreak, eragile traktore gisa jardunez, lidergoa hartu, eta ERREKAKo taldearekin batera lan egituratu eta sistematiko bat egingo dute: ekintza planak zehaztu, plan horien aurrerapen mailaren jarraipen zehatza egin, eta ezarritako negozio helburuetan izandako desbideratzeei aurre egiteko neurri zuzentzaileak azkar hartu.

## Klima aldaketari lotutako arriskuak eta aukerak.



### INFORME SOBRE LOS RIESGOS Y OPORTUNIDADES ASOCIADOS AL CAMBIO CLIMÁTICO



2024an, klima aldaketaren arrisku sistemiko eta globalarekin lotutako alderdiak lantzen jarraitu dugu, 2023an egindako ariketan oinarrituta. Ildo horretan, kontsumo elektrikoa eta igorpenak murrizteko eta deskarbonizazio plana garatzen jarraitzeko jarduerak egin ditugu.

Klima aldaketarekin lotutako arriskuen eta aukeren azterketa Taskforce on Climate related Financial Disclosure (TCFD) erakundearen gomendioetan oinarrituta egin genuen.

- Gobernantzari dagokionez, goi zuzendaritzak arriskuen eta aukeren ebaluazioan parte hartu du, eta, horrela, betearazpenaren gaineko lidergoa eta esleitutako ebaluazioaren emaitza bere gain hartu ditu, baita beharrezko erantzukizunak ere.
- Erabilitako metodoak hainbat agertoki kontuan hartzera eraman gaitu, zehazki hauek:
  - o SSP1-2.6 (Jasangarritasuna)
  - o SSP2-4.5 (Tarteko Egonkortasuna)
  - o SSP5-8.5 (Igorpen handiko garapen handia)

Eta ikuspegi dual bat aplikatzea ere bai, arrisku iragankorrak eta aukerak, batetik, eta arrisku fisikoak, bestetik, bereiziz.

Arriskuen eta aukeren kudeaketa  
Leheneste prozesu baten ondoren, honako hau izan da emaitza arrisku transakzionaletarako:

| RIESGOS TRANSICIONALES RELACIONADOS CON EL CLIMA |                               |                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                           |                                       |
|--------------------------------------------------|-------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|---------------------------------------|
| Código                                           | Categoría                     | Subtipo                                                                                                                                  | Impacto financiero potencial                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | Estimación de la probabilidad del impacto | Estimación de la gravedad del impacto |
| TR-1                                             | Riesgos políticos y jurídicos | Mandatos y nuevas regulaciones relacionadas con el clima (metas de carbono, precios del carbono, etc.)                                   | La adaptación a estándares más estrictos puede conllevar costos considerables para implementar tecnologías más limpias y procesos sostenibles, así como para realizar informes detallados sobre emisiones, aumentando las demandas operativas y administrativas. Estos costos adicionales podrían verse agravados por potenciales incrementos en el precio del crédito de carbono o la introducción del Mecanismo de Ajuste de Carbono en Frontera (CBAM, por sus siglas en inglés), lo que aumentaría aún más la carga financiera sobre las emisiones de carbono y podría afectar negativamente la rentabilidad del negocio a medida que se implementen estas medidas regulatorias. | 54%                                       | 3                                     |
| TR-2                                             | Riesgos tecnológicos          | Fluctuaciones en el entorno socioeconómico (nuevas tecnologías destinadas a apoyar la transición mundial con bajas emisiones de carbono) | La inversión inicial requerida para adoptar estas tecnologías puede impactar negativamente los márgenes de beneficio a corto plazo, especialmente si la demanda del mercado no refleja de inmediato la preferencia por productos más sostenibles. Además, la depreciación acelerada de tecnologías existentes podría aumentar los costos de transición, generando una carga financiera adicional.                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 100%                                      | 3                                     |
| TR-8                                             | Riesgos de mercado            | Incremento en el precio de las materias primas                                                                                           | Los efectos del cambio climático, en gran parte provocados por la regulación climática emergente, puede afectar los márgenes de beneficio, especialmente si no se pueden trasladar completamente a los clientes. Ejemplos destacables son los incrementos de materiales suministrados por organizaciones sujetas a mercados de derechos de emisión o al CBAM (Mecanismo de Ajuste en Frontera). La presión sobre los márgenes podría resultar en una disminución de la rentabilidad y en la necesidad de estrategias de gestión de costos para mantener la viabilidad financiera.                                                                                                    | 35%                                       | 3,5                                   |
| TR-11                                            | Riesgos de reputación         | Cambios en las preferencias de los consumidores/partes interesadas                                                                       | La adaptación a las demandas cambiantes de clientes y accionistas puede requerir inversiones significativas en innovación y marketing, así como ajustes en la cadena de suministro para cumplir con estándares sostenibles. Estos cambios pueden generar costos adicionales y presionar la rentabilidad del negocio, especialmente si los beneficios financieros no se materializan de manera inmediata.                                                                                                                                                                                                                                                                             | 41%                                       | 3                                     |

Arrisku fisikoetarako:

| RIESGOS FÍSICOS RELACIONADOS CON EL CLIMA |                                              |                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                           |                                       |
|-------------------------------------------|----------------------------------------------|------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|---------------------------------------|
| Código                                    | Categoría                                    | Factor de riesgo                               | Impacto financiero potencial                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | Estimación de la probabilidad del impacto | Estimación de la gravedad del impacto |
| PR-1                                      | Riesgos crónicos del cambio climático físico | Golpe de calor                                 | Las altas temperaturas pueden aumentar los costos operativos al requerir inversiones en sistemas de refrigeración adicionales para mantener las instalaciones a una temperatura adecuada. Además, el estrés térmico en los trabajadores puede afectar la productividad y la seguridad laboral, lo que podría generar costos adicionales asociados con la gestión de riesgos laborales y medidas de bienestar del personal. | 48%                                       | 2                                     |
| PR-2                                      | Riesgos agudos del cambio climático físico   | Sequía                                         | La reducción de la disponibilidad de agua podría aumentar los costos de operación, especialmente si la producción requiere grandes cantidades de agua en procesos de fabricación. Además, la escasez de agua puede afectar a los proveedores y generar inestabilidad en la cadena de suministro, con posibles interrupciones y costos asociados.                                                                           | 59%                                       | 2                                     |
| PR-3                                      | Riesgos agudos del cambio climático físico   | Inundaciones costeras, fluviales y/o pluviales | Las inundaciones pueden dañar infraestructuras, equipos y existencias, generando costos considerables de reparación y reemplazo. Además, las interrupciones en la cadena de suministro debido a inundaciones en áreas de proveedores pueden afectar la disponibilidad de materias primas, aumentando la incertidumbre y los costos asociados con la gestión de la cadena de suministro.                                    | 72%                                       | 2                                     |
| PR-4                                      | Riesgos agudos del cambio climático físico   | Fuertes precipitaciones y nieve                | Las condiciones climáticas extremas pueden dificultar el transporte de materiales y productos, generar retrasos en la producción y afectar la logística. Estos desafíos logísticos podrían aumentar los costos operativos debido a la necesidad de implementar medidas adicionales para garantizar la continuidad de las operaciones y cumplir con los compromisos de entrega.                                             | 72%                                       | 2                                     |
|                                           |                                              |                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 0%                                        | 0                                     |
|                                           |                                              |                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 0%                                        | 0                                     |
|                                           |                                              |                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 0%                                        | 0                                     |

Eta aukeretak:

| OPORTUNIDADES |                            |                                                                                        |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                           |                                       |
|---------------|----------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|---------------------------------------|
| Código        | Categoría                  | Oportunidad relacionada con el clima                                                   | Impacto financiero potencial                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | Estimación de la probabilidad del impacto | Estimación de la magnitud del impacto |
| OP-1          | Eficiencia de los Recursos | Iniciativas de reciclaje, eficiencia y economía circular                               | Al implementar prácticas de gestión de residuos más sostenibles, reutilizar materiales y adoptar enfoques de economía circular, la empresa puede no solo reducir su impacto ambiental, sino también generar eficiencias operativas. La optimización de los recursos y la gestión responsable de residuos pueden conducir a ahorros significativos a largo plazo, al tiempo que fortalecen la reputación de la empresa en términos de sostenibilidad, lo que podría atraer a clientes comprometidos con prácticas empresariales responsables.                                    | 3                                         | 3                                     |
| OP-2          | Fuente de Energía          | Utilización de fuentes de energía eléctrica de menor emisión                           | Al invertir en tecnologías y prácticas que reduzcan la huella de carbono, como la adopción de energías renovables, la empresa contribuirá a la mitigación del cambio climático y podrá beneficiarse de potenciales ahorros en costos a través de programas de eficiencia energética y reducción de emisiones.                                                                                                                                                                                                                                                                   | 4                                         | 3                                     |
| OP-3          | Fuente de Energía          | Participación en el mercado del carbono                                                | Al participar en programas de comercio de carbono o proyectos de compensación, la empresa puede demostrar su compromiso con la sostenibilidad y generar ingresos adicionales al comercializar créditos de carbono generados por sus iniciativas ambientales.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 2                                         | 2                                     |
| OP-4          | Productos y servicios      | Producción de bienes y servicios con bajas emisiones de carbono (I+D+i)                | Mediante la innovación en procesos y productos con menor impacto ambiental, la empresa puede diferenciarse en el mercado, atraer a consumidores conscientes de la sostenibilidad y posicionar sus ofertas como soluciones líderes en la transición hacia una economía baja en carbono.                                                                                                                                                                                                                                                                                          | 4                                         | 4                                     |
| OP-5          | Productos y servicios      | Acceso a nuevos mercados                                                               | Al ofrecer productos y servicios que cumplen con estándares ambientales y sociales, la empresa puede expandir su base de clientes y explorar oportunidades en segmentos de mercado que valoran la responsabilidad ambiental.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 3                                         | 3                                     |
| OP-6          | Mercados                   | Uso de incentivos del sector público o subvenciones relacionadas con la sostenibilidad | Al aprovechar programas gubernamentales que fomentan prácticas empresariales sostenibles, la empresa puede beneficiarse de apoyo financiero y reducciones fiscales, lo que contribuirá a mitigar los costos asociados con la implementación de medidas medioambientales.                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | 2                                         | 3                                     |
| OP-7          | Mercados                   | Acceso a nuevos mercados y nuevos activos                                              | La oportunidad de acceso a nuevos mercados y activos surge al diversificar las operaciones hacia áreas geográficas o sectores que priorizan la sostenibilidad. Esto puede generar nuevas fuentes de ingresos, a la par que fortalecer la posición competitiva de la empresa en un panorama empresarial cada vez más centrado en la responsabilidad ambiental.                                                                                                                                                                                                                   | 3                                         | 3                                     |
| OP-8          | Resiliencia                | Mejorar la confiabilidad, sostenibilidad y resiliencia                                 | Al fortalecer la infraestructura y las prácticas operativas para hacer frente a eventos climáticos extremos y otros riesgos, la empresa puede reducir la vulnerabilidad a interrupciones y pérdidas. La inversión en sistemas de gestión de crisis, respaldo de energía sostenible y evaluación de riesgos climáticos puede mejorar la capacidad de la empresa para adaptarse a cambios inesperados y garantizar la continuidad de las operaciones. Además, una mayor sostenibilidad y resiliencia pueden atraer inversiones sostenibles y mejorar la reputación de la empresa. | 4                                         | 2                                     |

- Metrikak eta helburuak  
2025. urtean neurri zehatzak ezarriko dira, hautemandako arriskuak arintzeko, bai eta lotura duten KPIak ere.

## Merkatuari lotutako arriskuak

2024an, dibisio mailan eta jarduten dugun sektoreei dagokienez partekatutako analisisien arabera, honako arrisku faktore hauek baldintzatutako egoera orokor bati aurre egiten jarraitzen dugu:

- Inflazioa, diruaren balioa pixkanaka galtzeagatik: lehengaien, energiaren, garraioaren, zerbitzuen... igoera.
- Altzairua, aluminioa, osagai elektronikoak eta pareko lehengai kritikoak hornitzeko gaitasuna.
- Gerraren ondorioz hornidura kateak eskas edo etenda egotea.
- Globalizazioaren amaiera eta blokeen geopolitika berria, erregionalizazioa eta merkatu txikiagoak.
- Ziurgabetasuna automobilgintzaren sektorean.
- Zibersegurtasuna.
- Administrazio publikoaren karga fiskal eta sozial gero eta handiagoak.
- Historikoki diruz lagundutako merkatu eta sektoreetan jarduteko arriskua.
- Biztanleria, oro har, pobretzea.
- Finantzaketa gero eta garestiagoa.
- Eskulan kualifikatuaren eskasia.
- Gure lehiakide batzuen garapena ACCESS merkatuan.
- Bezero garrantzitsu batzuen egoera ekonomiko-finantzario zaila.

## 4- Kudeaketa eredua

Erreka Taldearen kudeaketa eredua PDCA kudeaketaren ikuspegi integratuan oinarritzen da (Planifikatu – Egin – Egiaztatu – Jardun), erakundearen maila guztietan: maila estrategikoan, prozesuen mailan (operatiboak zein euskarriak), eta sistemen mailan, bere estrategiaren eta eragiketen alderdi garrantzitsu guztiak kudeatzeko.

Maila estrategikoan, kudeaketa zikloak maila guztietan egitearen ondoriozko emaitzak integratzen dira, eta, erakundearen eta bere interes taldeen kanpoko testuingurua aztertzearekin batera, AMIA (Ahuleziak – Mehatxuak – Indarguneak – Aukerak) eta erronkak berrikusten dira. Horren ondoren, hurrengo kudeaketa zikloan lortu beharreko erronka berriak zehazten dira.


Plan Estrategikoa urtero zabaltzen da, Gestio Planaren bidez. Behar diren baliabideak zenbatzen dira, diseinatutako epe luze, ertain eta laburrerako estrategia zabaltzeko antolaketa egokiena definitzen da, eta, era berean, definitutako erronka bakoitzean aurrera egin dela egiaztatzea ahalbidetuko duen aginte taula estrategikoa ezartzen da.

Prozesuen mailan, urtero, Gestio Planetik eratorritako gidalerroak eta helburuak betetzetik, ekintza planetatik eta arriskuen analisitik etorritako informazioa jasotzen da, hurrengo kudeaketa zikloko helburuak doitzeko, doitu beharreko prozesuko elementuak identifikatzeko, eta talde, departamentu eta pertsonen jarraibide egokiak zabaltzeko.

Prozesuen jabeek eta beren lantaldeek aldian-aldian jarraipena egiten diete beren kudeaketa eremuko helburu eta ekintzei, eta, horretarako, ekintza egokiak egiten dituzte.

Urtero, jabeek beren helburuen betetze mailari, zabaldutako proiektuen errendimenduari eta prozesuaren arrisku mapari buruzko informazioa ematen dute, eta behar diren hobekuntza proiektuak proposatzen dituzte.

Negozioak izaera kritikoa duenez, bezeroen kalitate baldintzak betetzeari, ingurumena babesteari, langileen osasun eta segurtasunari eta ondarearen erantzukizunari dagokienez, Zuzendaritza Kontseiluak kudeaketa sistema integratua garatzea sustatzen du, araudi espezifikoetan oinarrituta, honako irudi honetan jasotzen den bezala, eta dagozkion ziurtagiriak lortuz.



2024an, gure Kudeaketa Sistema Integratuan beste ziurtagiri bat gehitu genuen: INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA KUDEATZEKO ISO 27001 araudia, matrizerara eta ERREKA MEX zein ERREKA PLAST filialetara ere iristen dena.

Era berean, INGURUMENA KUDEATZEKO ISO 14001 ziurtagiria ezarri dugu ERREKA PLAST filialean.

Kudeaketa Sistema Integratuetakoa arduradunek politika egokiak eta arreta egokiko prozedurak baliatzen dituzte. Erakundean zehar hedatzen dituzte, aldian-aldian beren funtzionamendua ebaluatuz. Horien egokitasunari buruzko berrikuspene egiten dute urtero, eta informazioa ematen dute.

Taula honetan, Erreka Taldeak gai garrantzitsu ez-finantzario bakoitzerako erabiltzen dituen kudeaketa ikuspegiak erakusten dira:

| GALDERA                                                                                                                                                          | KUDEAKETA IKUSPEGIA                                                                                                                      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ingurumen gaiak<br>Arrisku ertaina - Hondakinen sorrera esanguratsua                                                                                             | “AZPIEGITUREN ETA EKIPAMENDUEN KUDEAKETA” prozesua.<br><br>Kudeaketa sistema integratua (ISO 14.001 ziurtagiria, ISO 50001 ziurtagiria). |
| Gizarte eta pertsonal gaiak<br>Arrisku handia - Pertsonetan oinarritutako eredu kooperatiboa                                                                     | Estatutu Sozialak<br>Kooperatibaren Barne Araudia<br>Jokabide kodea<br>“PERTSONEN KUDEAKETA ETA GARAPENA” prozesua<br>ISO 45001          |
| Giza Eskubideak errespetatzea<br>Arrisku txikia balio kate osoan                                                                                                 | Estatutu Sozialak<br>Kooperatiben Barne Araudia<br>Kode etikoa COMPLIANCE dokumentuan                                                    |
| Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka<br>Arrisku txikia - Eragiketak sektore helduetan                                                                  | Kooperatibaren Barne Araudia<br><br>Kode etikoa COMPLIANCE dokumentuan                                                                   |
| Gizartea<br>Arrisku txikia - Gure eragin eremuan oso errotuta dagoen kooperatiba eredua<br>Gure produktuek ez dute eraginik kontsumitzaileengan                  | ERREKA Taldearen elkartasuna<br>MONDRAGON Elkartasuna                                                                                    |
| Informazioa kudeatzea (konfidentzialtasuna, integritatea eta erakunde barruko datuen erabilgarritasuna –bai datu propioak bai gure bezero eta hornitzaileenak–). | ISO 27001                                                                                                                                |
| Produktua                                                                                                                                                        | ISO 9001<br>IATF<br>ISO 13485                                                                                                            |

Aurrerago, xehetasun handiagoz azalduko ditugu ikuspegiak, gai espezifikoetarako buruzko ataletan.

## 5- Materialtasunaren analisisia

Memoria hau idazteko, 2021eko ekitaldian Erreka Taldean egindako eta hurrengo urteetan berrikusitako Materialtasun Azterlana hartu da kontuan.

Ekitaldi hartan, lau fasetan banatutako prozesua egin zen:

- 1) Gai materialak zehazteko prozesua
- 2) Komunikazioa interes taldeekin
- 3) Ariketa, kooperatiba barruan
- 4) Iritziak trukitzea, eta matrizea sortzea eta baliozkotzea

Gerora, materialtasun matrizea berrikusi dugu, honako input hauek kontuan hartuta:

- Mondragoneko Osagaien Dibisioaren materialtasun azterlana, 2022koa.
- Enpresak azken urtean izandako joerak eta haiei buruzko hausnarketak.

### Gai materialak zehazteko prozesua

Gai materialak identifikatzeko, honako hauek hartu genituen kontuan: GRI estandarrak, Erreka Taldearen jarduerak eragindako gai garrantzitsuak (sektorialak), bete beharreko lege baldintzak eta Mondragon Korporaziotik haren jasangarritasun estrategia definitzeraz bideratutako jarraibideak.

Gaiak bost arlo hauetan sailkatu genituen:

- Ekonomikoa: negozio jarduerari eta bideragarritasun ekonomikoari eragiten diotenak
- Gobernantza: enpresaren jarduera gidatzeko garrantzitsuak direnak
- Pertsonen arloa: lan baldintzekin eta langileen enplegarritasunarekin lotutako gaiak
- Ingurumena: enpresa jarduerak ingurumenean duen eragina aztertzeako gaiak
- Gizartea: enpresatik kanpo gertatzen den eragin soziala adierazten duten gaiak

Hona hemen arlo bakoitzerako zehaztutako gaiak eta horien azalpena.

### Gai materialak

| Arlo ekonomikoa                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                               |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| <b>Berrikuntza</b><br>Produktuei, zerbitzuei, prozesuei eta proiektu estrategikoei aplikatutako kultura berritzailea sustatzea, eraginkortasun ekologikoa eta kalitatea hobetzen jarraitzeko. Kalitate handiko estandarrak dituzten produktu berritzaileen diseinua.                                              | EZ GRI                        |
| <b>Jarduera ekonomikoa - Sendotasun finantzarioa</b><br>Ekonomikoki modu jasangarrian haztea, kooperatibaren iraunkortasuna bermatzeko.                                                                                                                                                                           | GRI 201                       |
| <b>Hornidura katearen kudeaketa arduratsua</b><br>Hornitzaileen ebaluazioan garapen jasangarriarekin lotutako gaiak sartzea, jasangarritasunaren bidez enpresa gisa dugun konpromisoa balio katean zabaltzeko. Lehentasuna ematea kooperatibak jarduera duen eremuetako tokiko hornitzaileei egindako erosketari. | GRI 204<br>GRI 308<br>GRI 414 |

|                                                                                                                                                                                                                                                           |        |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------|
| <p>Digitalizazioa</p> <p>Eraldaketa prozesuarekin jarraitzea, bi eremutan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Barne kudeaketa: enpresa kudeaketarekin lotutako prozesuak</li> <li>• Industria arloa: produktuekin lotutako prozesuak</li> </ul> | EZ GRI |
| <p>Dibertsifikazioa</p> <p>Gaur egun lanean ari garen sektoreetan kuota handitzea eta negozio berrietan lekua egitea.</p>                                                                                                                                 | EZ GRI |

## Gobernantza

|                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|
| <p>Gobernantza demokratikoa eta eraginkorra</p> <p>MONDRAGON Korporazioan definitutako kooperatiba on baterako Gobernantza Gida aztertzea eta Errekako gure gobernu balioekin bat datorren eta eraginkorra den gobernantza eredua diseinatzea.</p>                                         | EZ GRI             |
| <p>Komunikazioa eta gardentasuna</p> <p>Behar diren mekanismoak eskura izatea, bi norabideko informazio trukerako; batetik, kooperatibaren jarduerarekin lotutako erabakiak eta zereginak ulertzeko, eta, bestetik, erakundea osatzen duten pertsona guztien iritzia kontuan hartzeko.</p> | EZ GRI             |
| <p>Gobernantza etikoa</p> <p>Kooperatibaren gobernantza eta kudeaketa organoen portaera etikoa eta arduratsua bermatzea. Besteak beste, ustelkeria, funtzionario eroskeria, iruzurra edo lehia desleiala saihesteko mekanismoak ezartzea.</p>                                              | GRI 205<br>GRI 206 |
| <p>Jasangarritasunarekin konprometitutako gobernantza</p> <p>Garapen jasangarria bultzatuko duen enpresa eredua sustatzea.</p>                                                                                                                                                             | EZ GRI             |

## Pertsonen arloa

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|
| <p>Enpresa arina eta malgua</p> <p>Langileen gogobetetzean eta enplegarritasunean eragin positiboa izango duen enpresa eredua sortzea. Besteak beste, honako gai hauek kudeatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitza pertsonala eta profesionala kontziliatzeko baldintzak</li> <li>• Ordainsari sistema solidarioa</li> <li>• Talentuari eusteko eta langileen garapen profesionala eta pertsonala errazteko espazioak eta prozesuak sortzea, aldaketa kultura sustatzeko.</li> </ul> | GRI 401<br>GRI 404 |
| <p>Enpresa osasuntsua</p> <p>Enpresa eredu bat bultzatzea, lanpostuak pertsonaren beharretara egokitze, eta, bereziki, honako gai hauei heltzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasuna eta segurtasuna lanean</li> <li>• Lan harreman osasungarrien sarea sustatzea</li> <li>• Kalitatezko enplegua eta langileen eskubideak bermatzea</li> </ul>                                                                                                                                        | GRI 403            |
| <p>Aniztasuna eta aukera berdintasuna</p> <p>Lan ingurune inklusiboa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunean eta kultura aniztasunean oinarrituta.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | GRI 405            |

|                                                                                                                                    |        |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------|
| Euskara                                                                                                                            |        |
| Enpresaren euskara planean ezarritakoaren arabera, euskara izatea lan hizkuntza nagusia enpresaren egoitzetako barne harremanetan. | EZ GRI |

### Ingurumena

|                                                                                                                                                                           |         |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| Igorpenak<br>Igorpen atmosferikoak murriztea.                                                                                                                             | GRI 305 |
| Hondakinen kudeaketa arduratsua<br>Sortutako hondakinak murriztea, ingurumen eragina minimizatzeko, eta sortutako hondakinak modu arduratsuan kudeatzea.                  | GRI 306 |
| Lehengaien erabilera arduratsua<br>Lehengaien erabilera optimizatzea, ingurumen eragina minimizatzeko: erabilera murriztea eta lehengai birziklatuen erabilera sustatzea. | GRI 301 |
| Energia eraginkortasuna<br>Energiaren erabilera optimizatzea eta energia berriztagarrien aldeko apustua egitea.                                                           | GRI 302 |
| Ura<br>Uraren erabilera arduratsua: kontsumoa murriztuz eta berrerabiltzeko mekanismoak ezarriz.                                                                          | GRI 303 |
| Lan mugikortasuna<br>Lan mugikortasuneko plana diseinatzea eta abian jartzea.                                                                                             | GRI 305 |

### Gizartea

|                                                                                                                                                                                                                                              |         |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|
| Tokiko komunitatearen garapena<br>Parte hartze aktiboa izatea Errekako lantegiak kokatuko diren tokiko gizartean, gizarte ekintzako ekimenen, elkartasun ekimenen eta bestelakoen bidez. Interes taldeekin lankidetzat harremanak sustatzea. | GRI 413 |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------|

## Komunikazioa interes taldeekin

2021eko ekitaldian lehentasun ariketa bat egin genuen, kanpoko interes taldeen ikuspegia jasotzeko, hiru ezaugarri kontuan hartuta: 1) interes taldeak kooperatibaren jardueran duen eragina, 2) kooperatibaren jarduerak interes talde horretan duen eragina eta 3) interes talde bakoitzak enpresa jardueraren etorkizunean izango duen garrantzia.

Hona hemen interes taldeen zerrenda:

- Bezeroak
- Enpresa hornitzaileak
- Finantza erakundeak
- MONDRAGON Korporazioa
- Zentro teknologikoak
- Hezkuntza erakundeak
- Tokiko komunitatea -> udalak
- Administrazio publikoa -> Gipuzkoako Foru Aldundia

Ez dugu eguneratu interes taldeen lehentasuna matrizean, horiei entzutearena atzeratu egin delako, eragile bakoitzarekin elkarreragin zuzenagoa egiteko asmoarekin, bai eta, 2021ean egin zen bezala, online inkesta berriro egiteko asmoarekin ere.

## Ariketa, kooperatiba barruan

2023ko urtarrilean hausnarketa saio bat egin genuen, 2021ean enpresa ikuspegitik lehenetsitako gai materialak baloratzeko. Saio hartan, honako hauek parte hartu zuten: Gobernantza organoetako ordezkariak (Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Batzordeko kideak) eta hainbat arlotako bazkide langileak. Eta han, alde batetik, 2021eko gai materialak aurkeztu genituen, horietako bakoitzari esleitutako garrantziaren ordenan, eta osagaien dibisioak eta hausnarketan lehenetsitako gaiak lerrokatu genituen.


Ondorioak:

- Osagaien Dibisioaren gai materialen artean Matz Errekak 2021ean hautatutako gai guztiak sartu genituen, euskara eta komunitatearen garapena izan ezik.
- Osagaien Dibisioak gai bakarra aukeratu zuen, Matz Errekaren gai materialetan agertzen ez zena: bezeroaren baldintzak egokitzea eta betetzea.

Adostutako aldaketak:

- ‘Bezeroaren baldintzak egokitzea eta betetzea’ materialen artean sartzea erabaki zen. Gai horrek enpresaren jarduera ekonomikoarekin lotura zuzena duela azpimarratu zen, eta nahiz eta aurretik ez zen esplizituki jaso, egunerokoan lehentasun garbia da. Material tematikoen multzoaren parean egotea erabaki zen, 8 punturekin.
- Gobernantzari dagokionez, 7 punturekin jaso zen gobernantza demokratikoak eta eraginkorrak bere garrantzia duela, baina azken urteko joerak ikusita, eta jasangarritasuna enpresen egunerokotasunean hartzen ari den garrantzia kontuan hartuta, jasangarritasunarekin lotutako gobernantza lehenetsi zen, eta bi gai material horien ordena aldatzea onartu zen.

Materialtasun matrizea (2024)



Erakundearentzat garrantzia maila

| EKONOMIKOA                                       | GIZARTEA                                            | INGURUMENA                         | PERTSONAK                             |
|--------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|------------------------------------|---------------------------------------|
| 1 Berrikuntza irekia                             | 6 Tokiko komunitatearen garapena                    | 11 Emisioak                        | 17 Enpresa arina eta malgua           |
| 2 Jarduera ekonomikoa - Gendotasun finantzarioa  |                                                     | 12 Hondakinen kudeaketa arduratsua | 18 Enpresa osasungarria               |
| 3 Hornidura katearen kudeaketa arduratsua        | GOBERNANTZA                                         | 13 Lehengaien erabilera arduratsua | 19 Aniztasuna eta aukera berdintasuna |
| 4 Digitalizazioa                                 | 7 Gobernantza demokratiko eta eraginkorra           | 14 Energia efizientzia             | 20 Euskara                            |
| 5 Dibertsifikazioa                               | 8 Komunikazioa eta gardentasuna                     | 15 Ura                             |                                       |
| 21 Bezeroaren eskakizunak egokitzea eta betetzea | 9 Gobernantza etikoa                                | 16 Lanerako mugikortasuna          |                                       |
|                                                  | 10 Iraunkortasunarekin konprometitutako gobernantza |                                    |                                       |

Irudian, hiru mailatan banatu diren gai materialak ikus daitezke (zenbakiak materialtasun matrizearen legendari dagozkio):

1. maila:

- Jarduera ekonomikoa - Sendotasun finantzarioa -> 2
- Komunikazioa eta gardentasuna -> 8
- Enpresa osasuntsua -> 18
- Lehengaien kudeaketa arduratsua -> 13
- Enpresa arina eta malgua -> 17
- Bezeroaren eskakizunak egokitzea eta betetzea -> 21
- Energia eraginkortasuna -> 14
- Berrikuntza irekia -> 1
- Dibertsifikazioa -> 5

2. maila:

- Euskara -> 20
- Jasangarritasunarekin konprometitutako gobernantza -> 10
- Digitalizazioa -> 4
- Tokiko komunitatearen garapena -> 6
- Gobernantza demokratikoa eta eraginkorra -> 7
- Aniztasuna eta aukera berdintasuna -> 19

3. maila:

- Gobernantza etikoa -> 9
- Hondakinen kudeaketa arduratsua -> 12
- Hornidura katearen kudeaketa arduratsua -> 3
- Igorpenak -> 11
- Ura -> 15
- Lan mugikortasuna -> 16

## 6- Ingurumen gaiei buruzko informazioa

Erreka Taldeak kudeaketa neurriak sartzen ditu bere prozesuen barruan, bere jarduerak sortzen duen ingurumen eragina murrizteko, eta ISO 14001 arauak ziurtatzen du hori.

ERREKA Taldeak, 2024an, 52.686 € inguru erabili ditu ingurumenaren kudeaketarako. Zenbateko horretatik 11.798 € Mexikok jarri ditu, 25.949 € Txekiako filialak, eta gainerakoa, 14.938 €, matrizeak berak –Matz Erreka– egindako gastua da. Era berean, gastu horiek guztiak banatu egin dira: hondakinak tratatzeko eta ezabatzekeo gastuetara, 22.803 €, eta gainerako 29.883 €-ak, kanpoko zerbitzu eta ziurtagirietarako gastuetara.

Txekiako filialean gastua nabarmen handitu da, ISO 14001 ziurtagiria lortzeko prozesuaren ondorioz.

### Kutsadura prebenitzeko neurriak

Errekak bere ingurumen alderdi guztiak aztertzen ditu urtero, eta hobekuntza helburuak zehazten ditu, ezarritako prozeduretan oinarrituta. Horretarako, aldaera guztiak aztertzen ditu, hala nola materialen, uraren eta energiaren kontsumoa, kanpoko zarata, kolektoreetara egindako isurketak eta kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten hondakinak.

Erreka Taldearen igorpen guztiak indarrean dagoen legeriak ezarritako gehienekoen azpitik daude.

### Produktuari aplikatutako ekonomia zirkularra

Aurreko ziklo estrategikoaren ildo beretik jarraituz, gure bezeroei eskaintzen dizkiegun produktu eta zerbitzuen diseinuan zirkulartasun irizpideak aplikatzen jarraitzen dugu. Horrek honako ekimen eta ekintza hauek ekarri ditu.

- Bitzita baliagarriaren luzapena handitzea eta on-shore aerosorgailuen mantentzaileen kostua ere murriztea
- Eolikorako eta motorretarako loturak diseinatzeko ingeniari-tza zerbitzuen eskaintza zabaltzea
- Konpondutako produktuen lerroa indartzea
- Lehengai birziklatuak erabiltzea

Hori guztia ekonomia zirkularraren logikari erantzunez, ekodiseinuaren bidez, produktua garatzeko eta bizi zikloaren faseetan zehar ingurumen eragina murrizteko. Era berean, gure zerbitzuak diseinatzean, gure bezeroei beren baliabideen kudeaketa eraginkorragoa egiteko aukera emango dieten tresnak emateko paradigma betetzen dugu.

**Ekonomia zirkularra eta hondakinen kudeaketa**

Ekonomia zirkularraren logikan oinarrituta, Erreka Taldean lehengaien hornidura arduratsua egiten eta hondakinen ekoizpena errotik mugatzen saiatzen gara, materialak murriztuz, berreskuratuz eta berrerabiliz.

2024an zehar, ekoizpen prozesuan hondakin materialen berreskuratze eta berrerabilera datuak hobetzen jarraitu dugu. Soberakinaren birziklatzea eta birprozesatzea optimizatu dugu, ekonomia zirkularraren ereduari jarraituz. Karbono aztarna murrizten duten elementuen zerrenda aztertuz eta hondakinak prozesatu ondorengo teknikak garatuz, berrerabilitako materiala erabiltzea ahalbidetzeko.

Gainera, Erreka Taldeak ontzien eta enbalajeen Prebentzio Plan bat du, hiru urtean behin egiten dena. Hauek dira produktuak hornitzeko erabiltzen diren ontzien materialak: kartoia, plastikoa eta egurra.

Hondakinak baimendutako hondakinen kudeatzaileei ematen zaizkie, behar bezala tratatzeko. Era berean, 2024an, Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektibo (SCRAP) batera atxiki gara, merkatuan jarritako enbalajeengatik ekarpen baldintza betetzeko, 1055/2022 Errege Dekretuak zehazten duen bezala. Horrela, hondakinak modu eraginkorrean kudeatzen laguntzen dugu bilketa, garraio, tratamendu eta birziklatze faseetan. Eta, gainera, ekonomia zirkularra sustatzen dugu, bai eta ingurumen aztarna murrizten ere.

Hona hemen 2024an Erreka Taldean kudeatutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kopuru espezifikoak.

| Sortutako hondakinen bolumena, motaren arabera (kg)<br><i>Volumen de residuos generados por tipo (kg)</i> | 2024       | 2023       | Evolución 2024-2023 bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|-------------------------------|
| Hondakin ez-arriskutsuak //<br><i>Residuos no peligrosos</i>                                              | 492.933,00 | 523.420,25 | -%5,82                        |
| Hondakin arriskutsuak //<br><i>Residuos peligrosos</i>                                                    | 18.723,00  | 20.744,00  | -%9,74                        |
| GUZTIRA // <i>Total</i>                                                                                   | 511.656,00 | 544.164,25 | -%5,97                        |

2024an, enbalaje hondakinak hondakin ez-arriskutsutzat hartu dira, eta, 2023an ez ziren kontuan hartu, akats baten ondorioz.

Hona hemen, zehaztuta, 2024an Matz Erreka S.Coop.en kudeatutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kopurua, lantegien arabera:

| PLASTICS<br>Sortutako hondakinen bolumena, motaren arabera (kg)<br><i>Volumen de residuos generados por tipo (kg)</i> | 2024      | 2023      | Evolución<br>2024-2023<br>bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-------------------------------------|
| Hondakin ez-arriskutsuak //<br><i>Residuos no peligrosos</i>                                                          | 48.833,00 | 36.325,00 | %34,43                              |
| Hondakin arriskutsuak //<br><i>Residuos peligrosos</i>                                                                | 1.320,00  | 1.300,00  | %1,54                               |
| GUZTIRA // Total                                                                                                      | 50.153,00 | 37.625,00 | %33,30                              |

| SMART FASTENING<br>Sortutako hondakinen bolumena, motaren arabera<br><i>Volumen de residuos generados por tipo (kg)</i> | 2024       | 2023       | Evolución<br>2024-2023<br>bilakaera |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|-------------------------------------|
| Hondakin ez-arriskutsuak<br><i>Residuos no peligrosos</i>                                                               | 292.360,00 | 324.980,00 | -%10,04                             |
| Hondakin arriskutsuak<br><i>Residuos peligrosos</i>                                                                     | 5.320,00   | 9.420,00   | -%43,52                             |
| GUZTIRA // Total                                                                                                        | 297.680,00 | 334.400,00 | -%10,98                             |

| CONNECTED ACCESS<br>Sortutako hondakinen bolumena, motaren arabera<br><i>Volumen de residuos generados por tipo (kg)</i> | 2024      | 2023      | Evolución<br>2024-2023<br>bilakaera |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-------------------------------------|
| Hondakin ez-arriskutsuak<br><i>Residuos no peligrosos</i>                                                                | 20.553,00 | 10.060,00 | %104,30                             |
| Hondakin arriskutsuak<br><i>Residuos peligrosos</i>                                                                      | 3.610,00  | 2.463,00  | %46.57                              |
| GUZTIRA // Total                                                                                                         | 24.163,00 | 12.523,00 | %92,95                              |

Hona hemen, zehaztuta, 2024an Mexikoko lantegian kudeatutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kopurua.

| Sortutako hondakinen bolumena, motaren arabera (kg)<br><i>Volumen de residuos generados por tipo (kg)</i> | 2024      | 2023      | Evolución 2024-2023 bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-------------------------------|
| Hondakin ez-arriskutsuak //<br><i>Residuos no peligrosos</i>                                              | 79.067,00 | 81.216,25 | -%2,65                        |
| Hondakin arriskutsuak //<br><i>Residuos peligrosos</i>                                                    | 5.360,00  | 5.934,00  | -%9,67                        |
| GUZTIRA // Total                                                                                          | 84.427,00 | 87.150,25 | -%3,12                        |

Hona hemen, zehaztuta, 2024an Txekiako lantegian kudeatutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kopurua:

| Sortutako hondakinen bolumena, motaren arabera (kg)<br><i>Volumen de residuos generados por tipo (kg)</i> | 2024      | 2023      | Evolución 2024-2023 bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|-----------|-------------------------------|
| Hondakin ez-arriskutsuak //<br><i>Residuos no peligrosos</i>                                              | 52.120,00 | 70.839,00 | -%26,42                       |
| Hondakin arriskutsuak //<br><i>Residuos peligrosos</i>                                                    | 3.113,00  | 1.627,00  | %91,33                        |
| GUZTIRA // Total                                                                                          | 55.233,00 | 72.466,00 | -%23,78                       |

Hona hemen desagerrarazi nahi EZ diren hondakinen zerrenda eta 2024an Erreka Talde osoan desagerraraztekoak diren hondakinak eta horiek desagerrarazteko edo berreskuratzeko metodoa:

| Desagerrarazteko metodoa<br><i>Método de eliminación</i>                      | 2024       | 2023       | Evolución<br>2024-2023<br>bilakaera |
|-------------------------------------------------------------------------------|------------|------------|-------------------------------------|
| Hondakin ez-arriskutsuak (kg)<br><i>Residuos no peligrosos (kg)</i>           |            |            |                                     |
| <b>BERRESKURATZEKO ERAGIKETAK</b><br><i>Operaciones de recuperación</i>       |            |            |                                     |
| <b>Berrerabilpena</b><br><i>Reutilización</i>                                 | 0,00       | 0,00       | %0,00                               |
| <b>Birziklapena</b><br><i>Reciclaje</i>                                       | 344.876,00 | 369.515,00 | -%6,67                              |
| <b>Berreskurapena</b><br><i>Recuperación</i>                                  | 0,00       | 0,00       | %0,00                               |
| <b>DESAGERRARAZTEKO ERAGIKETAK</b><br><i>Operaciones de eliminación</i>       |            |            |                                     |
| <b>Bestelako desagerrarazteak</b><br><i>Otro modo de eliminación</i>          | 79.067,00  | 81.216,25  | -%2,65                              |
| <b>Azken desagerrarazte ezezaguna</b><br><i>Eliminación final desconocida</i> | 68.990,00  | 72.689,00  | -%48,49                             |
| Hondakin arriskutsuak (kg)                                                    |            |            |                                     |
| <b>DESAGERRARAZTEKO ERAGIKETAK</b><br><i>Operaciones de eliminación</i>       |            |            |                                     |
| <b>Bestelako desagerrarazteak</b><br><i>Otro modo de eliminación</i>          | 18.723,00  | 20.744,00  | -%9,74                              |

Baliabideen erabilera jasangarria

Erreka Taldearentzat bere jarduerari lotutako baliabide garrantzitsuak dira hauek: ura, energia eta lehengaiak.

Hona hemen 2024an Erreka Taldeak ur erauzketari eta energia kontsumoari buruz emandako datuak:

Ur kontsumoa

| Ur erauzketa (m³) lantegietan<br><i>Extracción de agua (m3) por plantas</i> | 2024     | 2023     | Evolución<br>2024-2023<br>bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------|----------|----------|-------------------------------------|
| Plastics                                                                    | 463,00   | 678,00   | -%31,71                             |
| Smart Fastening                                                             | 1.100,00 | 1013,00  | %8,59                               |
| Connected Access                                                            | 532,00   | 140,00   | %280,00                             |
| ERREKA MEX.                                                                 | 178,00   | 370,00   | -%51,89                             |
| ERREKA PLAST.                                                               | 498,00   | 646,00   | -%22,91                             |
| GUZTIRA // Total                                                            | 2.771,00 | 2.847,00 | -%2,67                              |

Energia kontsumoa

| Erreka Taldearen energia kontsumoa, guztira<br><i>Consumo energético total Grupo Erreka kW/h</i> | 2024         | 2023         | Evolución 2024-2023 bilakaera |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------|-------------------------------|
| EZ-BERRIZTAGARRIAK // <i>No renovables</i>                                                       |              |              |                               |
| Elektrikoa                                                                                       | 8.395.580,25 | 7.719.673,09 | %8,76                         |
| Gas Naturala                                                                                     | 453.330,00   | 440.187,00   | %2,99                         |
| Petrolioia                                                                                       | 2.750,00     | 1.320,00     | %108,33                       |
| Gas propanoa                                                                                     | 1.637,44     | 19.620,00    | -%91,65                       |
| EZ-BERRIZTAGARRIAK, GUZTIRA // <i>No Renovables Total</i>                                        | 8.853.297,69 | 8.180.800,09 | %8,22                         |

Energia intentsitatearen ratioa

| Energia Intentsitatearen ratioa<br><i>Ratio de intensidad energética</i>                        | 2024          | 2023          | Evolución 2024-2023 bilakaera |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|---------------|-------------------------------|
| Energiaren kontsumoa, guztira (kWh)<br><i>Consumo energético total (kWh)</i>                    | 8.853.297,69  | 8.180.800,09  | %8,22                         |
| Fakturazioa (€)<br><i>Facturación (€)</i>                                                       | 75.201.866,51 | 75.933.276,00 | -%0,96                        |
| Langileak, guztira<br><i>Personas trabajadoras</i>                                              | 467           | 461           | %1,30                         |
| RATIOA 1 -><br>Energia kontsumoa / fakturazioa<br><i>Consumo energético/ facturación</i>        | %11,77        | %10,77        | %9,27                         |
| RATIOA 2 -><br>Energia kontsumoa / langileak<br><i>Consumo energético/personas trabajadoras</i> | 18.957,81     | 17.745,77     | %6,83                         |

Erreka Taldeak urtero aztertzen ditu energia kontsumoak, eta, nabarmenak izanez gero, hobetzeko helburu gisa ezartzen dira.

2024. urtean, energia eraginkortasuna negozioen kudeaketan aplikatu beharreko irizpidea izan da.

Smart Fastening negozioan, 2023an egindako auditoriaren ondoren, lanean jarraitzen dugu energia kontsumoaren datuaren kudeaketa optimizatzeke, azken urteotan egin dugun bezala.

Etengabeko hobekuntzarako gure politikari jarraituz, 2024an, INGURUMENA KUDEATZEKO ISO 14001 ziurtagiria lortu dugu ERREKA PLAST lantegian. Horrek baliabideak eta eragikeran sortutako inpaktuak modu eraginkor eta jasangarriago batean kudeatzen lagunduko digu.

Lehengaien erabilera eta materialen kontsumoa

Hona hemen Erreka Taldeko lehengaien erabilerari eta material garrantzitsuenen kontsumoari buruzko datuak:

| Materialen eta lehengaien kontsumoa (pisua edo bolumena)<br><i>Consumo de materiales y materias primas (peso o volumen)</i> | 2024         | 2023         | Evolución 2024-2023 bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------|-------------------------------|
| LEHENGAIK // Materias Primas                                                                                                |              |              |                               |
| <b>BERRIZTAGARRIAK</b><br><i>Renovables</i>                                                                                 |              |              |                               |
| Plastikozko galautsa (kg)<br><i>Granza de plástico (kg)</i>                                                                 | 2.448.402,00 | 2.565.027,00 | -%4,55                        |
| Altzairua (kg)<br><i>Acero (kg)</i>                                                                                         | 2.753.838,00 | 2.712.041,00 | %1,54                         |
| Aluminioa (kg)<br><i>Aluminio (kg)</i>                                                                                      | 91.769,00    | 103.598,00   | -%13,10                       |
| Olinoa (l)<br><i>Aceite (l)</i>                                                                                             | 13.000,00    | 18.458,00    | -%29,57                       |
| MATERIALEN KONTSUMOA // Consumo de materiales                                                                               |              |              |                               |
| <b>BERRIZTAGARRIAK</b><br><i>Renovables</i>                                                                                 |              |              |                               |
| Plastikoa (kg)<br><i>Plástico (kg)</i>                                                                                      | 35.381,47    | 21.713,00    | %62,88                        |
| Kartoia (kg)<br><i>Cartón (kg)</i>                                                                                          | 154.859,58   | 188.776,00   | -%17,97                       |
| Madera (kg)<br><i>Egurra (kg)</i>                                                                                           | 228.474,23   | 311.192,00   | -%26,58                       |

Klima aldaketa– Igorpenak

2024an, ERREKA Group erakundearen karbono azterna kalkulatu dugu, GHG protocol metodologian eta ISO 14064 ziurtagirian oinarritutako tresna bat baliatuta.

Neurketa 3 irismenetan egin da, 2022. urtea oinarri urte gisa definituta. 2024 honetan, datuan zehaztasuna bilatu dugu, eta horrek aurreko urtean lortutako balio batzuk birkalkulatzea eraman gaitu. Era berean, negozio bakoitzerako deskarbonizazio ibilbide bat diseinatu dugu, eta datozen urteetan ibilbide horretan zehaztutako ekintza planak gauzatzen joan beharko dugu.

Urte bakoitzean, informatu nahi dugun urtearen aurreko urteko datuak kalkulatzeko ditugu, eta, beraz, kasu honetan, 2022. eta 2023. urteetako datu konparatiboak ditugu. 2025eko lehen lauhilekoan, 2024ko datuak lortuko ditugu.

Igorpenen neurketa egin bitartean, ikasturte honetako helburuetako bat datuaren fidagarritasuna finkatzea eta bere jatorria zehaztea izan da. Horrek eraman gaitu 2022ko igorpenak kalkulatzeko erabilitako irizpideez bestelakoak aplikatzera; zehazki, Connected Accessen negozioan, produktu familietan oinarritutako hornitzaile talde bat ezarri da. Eta, horrenbestez, 2022ko igorpenak birkalkulatu behar izan ditugu.

Gainera, emaitza horiei MEXIKOKO CONNECTED ACCESS lantegiak 2022rako eta 2023rako lortutakoak gehitu ahal izan dizkiegu, aurretik kontuan hartu ez zirenak.

Horrekin guztiarekin, honako hauek izan dira 2022ko eta 2023ko igorpenak, Taldearen ekoizpen lantegi guztientzat:

Zuzeneko BEG igorpenak (1. irismena)

| BEG igorpenak (tCO <sub>2</sub> baliok.)<br><i>Emisiones de GEI (tCO<sub>2</sub>eq)</i> | 2023          | 2022          | Evolución<br>2023-2022<br>bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|---------------|---------------|-------------------------------------|
| <b>1. irismena</b>                                                                      |               |               |                                     |
| <i>Alcance 1</i>                                                                        |               |               |                                     |
| PLASTICS ANTZUOLA                                                                       | 4,99          | 98,84         | -%94,95                             |
| SMART FASTENING                                                                         | 10,24         | 56,02         | -%81,72                             |
| CONNECTED ACCESS BERGARA                                                                | 200,53        | 238,31        | -%15,85                             |
| CONNECTED ACCESS MEXIKO                                                                 | 133,19        | 132,86        | %0,19                               |
| ERREKA MEX PLASTICS                                                                     | 20,80         | 9,19          | %126,33                             |
| ERREKA PLAST PLASTICS                                                                   | 20,96         | 28,17         | -%25,59                             |
| <b>GUZTIRA // Total</b>                                                                 | <b>390,71</b> | <b>563,39</b> | <b>-%30,65</b>                      |

Zuzeneko BEG igorpenak (2. irismena)

| BEG igorpenak (tCO <sub>2</sub> baliok.)<br><i>Emisiones de GEI (tCO<sub>2</sub>eq)</i> | 2023            | 2022            | Evolución<br>2023-2022<br>bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|-----------------|-------------------------------------|
| <b>2. irismena</b>                                                                      |                 |                 |                                     |
| <i>Alcance 2</i>                                                                        |                 |                 |                                     |
| PLASTICS ANTZUOLA                                                                       | 360,40          | 467,55          | -%22,92                             |
| SMART FASTENING                                                                         | 263,95          | 467,04          | -%43,48                             |
| CONNECTED ACCESS BERGARA                                                                | 1,98            | 36,44           | -%94,57                             |
| CONNECTED ACCESS MEXIKO                                                                 | 6,74            | -               | -                                   |
| ERREKA MEX PLASTICS                                                                     | 1.310,23        | 1.130,30        | %15,92                              |
| ERREKA PLAST PLASTICS                                                                   | 795,03          | 778,27          | %2,15                               |
| <b>GUZTIRA // Total</b>                                                                 | <b>2.738,33</b> | <b>2.879,60</b> | <b>-%4,91</b>                       |

## Zuzeneko BEG igorpenak (3. irismena, ibaia gora)

| BEG igorpenak (tCO <sub>2</sub> baliok.)<br><i>Emisiones de GEI (tCO<sub>2</sub>eq)</i> | 2023              | 2022              | Evolución<br>2023-2022<br>bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|-------------------|-------------------------------------|
| <b>3. irismena, ibaia gora</b><br><i>Alcance 3 aguas arriba</i>                         |                   |                   |                                     |
| PLASTICS ANTZUOLA                                                                       | 20.710,27         | 11.097,98         | %86,53                              |
| SMART FASTENING                                                                         | 13.862,08         | 13.578,45         | %2,09                               |
| CONNECTED ACCESS BERGARA                                                                | 172.486,99        | 226.111,14        | -%23,72                             |
| CONNECTED ACCESS MEXIKO                                                                 | 497,12            | 165,09            | %201,12                             |
| ERREKA MEX PLASTICS                                                                     | 12.964,89         | 10.423,30         | %24,38                              |
| ERREKA PLAST PLASTICS                                                                   | 4.889,89          | 4.483,64          | %9,06                               |
| <b>GUZTIRA // Total</b>                                                                 | <b>225.411,24</b> | <b>265.859,60</b> | <b>-%15,21</b>                      |

## Zuzeneko BEG igorpenak (3. irismena, ibaia behe)

| BEG igorpenak (tCO <sub>2</sub> baliok.)<br><i>Emisiones de GEI (tCO<sub>2</sub>eq)</i> | 2023            | 2022            | Evolución<br>2023-2022<br>bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|-----------------|-------------------------------------|
| <b>3. irismena, ibaia behe</b><br><i>Alcance 3 aguas abajo</i>                          |                 |                 |                                     |
| PLASTICS ANTZUOLA                                                                       | 436,93          | 706,26          | -%38,13                             |
| SMART FASTENING                                                                         | 54,17           | 31,70           | %70,88                              |
| CONNECTED ACCESS BERGARA                                                                | 64,28           | 79,17           | -%18,81                             |
| CONNECTED ACCESS MEXIKO                                                                 | -               | -               | -                                   |
| ERREKA MEX PLASTICS                                                                     | 1.130,63        | 308,37          | %266,65                             |
| ERREKA PLAST PLASTICS                                                                   | 422,68          | 438,07          | -%3,51                              |
| <b>GUZTIRA // Total</b>                                                                 | <b>2.108,69</b> | <b>1.563,57</b> | <b>%34,86</b>                       |

Esanguratsuagoa izateagatik, informazio hau emango dugu: fakturazioko mila euroko, CO<sub>2</sub> kg baliokideak.

| Fakturatuak mila euroko, CO <sub>2</sub> kg baliokideak<br><i>Kg CO<sub>2</sub> eq. / miles de € de facturación</i> | 2023     | 2022     | Evolución<br>2023-2022<br>bilakaera |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------|----------|-------------------------------------|
| PLASTICS ANTZUOLA                                                                                                   | 283,31   | 180,79   | %56,70                              |
| SMART FASTENING                                                                                                     | 186,88   | 206,55   | -%9,52                              |
| CONNECTED ACCESS BERGARA                                                                                            | 2.275,07 | 3.309,68 | -%31,26                             |
| CONNECTED ACCESS MEXIKO                                                                                             | 8,39     | 4,35     | %92,87                              |
| ERREKA MEX PLASTICS                                                                                                 | 203,16   | 173,49   | %17,10                              |
| ERREKA PLAST PLASTICS                                                                                               | 80,71    | 83,71    | -%3,58                              |

ERREKA MEXIKOKo lantegiari soilik dagozkion beste igorpen atmosferiko garrantzitsu batzuk:

| Beste igorpen atmosferiko garrantzitsu batzuk<br><i>Otras emisiones atmosféricas significativas</i> | 2024  | 2023  | Evolución 2024-2023 bilakaera |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------|-------|-------------------------------|
| Kutsatzaile organiko lurrunkorra<br><i>Contaminantes orgánicos volátiles</i>                        | 28,32 | 30,32 | -%6,60                        |
| Partikulak<br><i>Partículas</i>                                                                     | 60,05 | 64,31 | -%6,62                        |

Eragina biodibertsitatean

Erreka Taldearen instalazio guztiak industrialdeetan edo hiriguneetan daude, eta, beraz, kokapen horietan egindako jarduerak ez du eragin zuzenik biodibertsitatean edo babestutako beste eremu batzuetan. Horregatik, txosten honetan ez dago garrantzizkotzat jo ez den alderdi horri buruzko informaziorik.

## 7- Gizarte gaiei eta pertsonen buruzko informazioa

Pertsonak funtsezko faktorea dira Erreka Taldean, eta gure erakundearen bisioak adierazten duen bezala, pertsonak dira ERREKAren "balio bereizgarri" garrantzitsuenak. Pertsonak nortasun propioa duten gizabanakotzat hartzen ditugu; hots, ilusioak, sentimenduak, asmoak, beharrak, gaitasunak, trebetasunak eta desioak dituztenak.

P70 "Pertsonen garapena" prozesuaren bidez zabaltzen ditugun pertsonen politikak koherenteak dira arau izaera duten barne dokumentu hauekin:

| Lan egindako orduak, guztira<br>// <i>Total de horas trabajadas</i>                                                                      | 853.539,00 |
| Lan istripuen ondorioz izandako heriotzak //<br><i>Fallecimientos resultantes de una lesión por accidente laboral</i>                    |            |
| Emakumeak // <i>Mujeres</i>                                                                                                              | 0          |
| Gizonak // <i>Hombres</i>                                                                                                                | 0          |
| TASA<br>(oinarria: 1.000.000 lanordu)                                                                                                    | %0,00      |
| Lan istripuen ondorioz izandako lesio eta gaixotasunak<br><i>Lesiones y enfermedades resultantes de una lesión por accidente laboral</i> |            |
| Emakumeak // <i>Mujeres</i>                                                                                                              | 1          |
| Gizonak // <i>Hombres</i>                                                                                                                | 8          |
| TASA<br>(oinarria: 1.000.000 lanordu)                                                                                                    | %10,54     |

Erreka Taldean ez da inoiz izan lan istripuak eragindako lesioaren ondoriozko heriotzarik, eta 2024an lan istripuak eragindako eta ondorio larriak dituen lesiorik gabe jarraitzen dugu, baita lan istripuak eragindako eta erregistratu daitekeen lesiorik eta gaixotasun profesionalaren kasurik gabe ere. Izan diren istripu arrazoi nagusiak ebakiak eta lunbalgiak izan dira.

Erreka Taldearen 2024ko absentismo datuak, generoaren eta herrialdearen arabera:

| Absentismo datuak<br><i>Absentismo laboral</i> | 2024   | 2023   | Evolución<br>2024-2023<br>bilakaera |
|------------------------------------------------|--------|--------|-------------------------------------|
| Matz Erreka, S. Coop.                          |        |        |                                     |
| Emakumeak // <i>Mujeres</i>                    | %4,10  | %1,52  | %169,74                             |
| Gizonak // <i>Hombres</i>                      | %5,58  | %4,29  | %30,07                              |
| Mexiko                                         |        |        |                                     |
| Emakumeak // <i>Mujeres</i>                    | %16,00 | %15,00 | %6,67                               |
| Gizonak // <i>Hombres</i>                      | %16,00 | %5,00  | %220,00                             |
| Txekia                                         |        |        |                                     |
| Emakumeak // <i>Mujeres</i>                    | %2,22  | %2,62  | -%15,27                             |
| Gizonak // <i>Hombres</i>                      | %2,78  | %1,68  | %65,48                              |

Harreman sozialak

Lan baldintzak Kooperatibaren Barne Erregimenean ezarrita daude, eta bazkide langileen %100i aplikatzen zaizkie.

Erreka Taldeko bazkideek lege eta estatutu arauen arabera eta kooperatibako organoek baliozkotasunez hartutako erabakien arabera gauzatzen dituzte beren eskubideak.

Bazkide ez diren pertsonen harreman soziolaboralen kudeaketa lan legedien eta legedi sindikalen arabera garatzen da, baita eremu geografiko bakoitzean indarrean dauden arau esparruen arabera ere.

Txekiatik jakinarazi digute langile bakar bat ere ez dagoela akordio edo negoziazio kolektiboen menpe.

Txekiar Errepublikako Estatuaren legearen arabera, ez da beharrezkoa langileek lan hitzarmen bat sinatuta izatea; hala eta guztiz ere, enpresaren eta enplegatuen arteko akordioak ezartzen dira.

|                                                                                                                                                                |      |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|
| Negoiazio kolektiboko akordioen menpe dauden pertsonen ehunekoa<br><i>Porcentaje de personas que están cubiertas por los acuerdos de negociación colectiva</i> | 2024 |
| Espainia                                                                                                                                                       | %100 |
| Mexiko                                                                                                                                                         | %25  |
| Txekia                                                                                                                                                         | %0   |

Zentro bakoitzak bere komunikazio kanalak ditu enpresaren eta langileen artean, informazioa emateko, baina, era berean, baita pertsonen kezkak, eskaerak, ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko eta horien berri izateko ere.

## Prestakuntza

Erreka presente dagoen sektoreek kalitate eskakizun oso garrantzitsuak dituzte kudeaketan, maila guztietan, eta horri erantzuteko, Erreka Taldeak pertsona gaituak ditu, etengabe ikasteko eta hobetzeko prozesuan daudenak.

Erreka Taldeak aldian-aldian elkarrizketa arautuak egiten ditu langileen eta horien arduradunen artean, pertsonen prestakuntza eta garapen beharrak identifikatzeko. Bestalde, "prestakuntza" prozedura bat du, identifikatutako prestakuntza ekintzak planifikatzeko, egiteko eta ebaluatzeko.

Prozedura horiek barneko eta kanpoko langileek ikuskatzen dituzte sistematikoki. Prozedura horiek urteko prestakuntza plana zehazteko gida gisa balio dute. Plan hori ekitaldian zehar doitzen joaten da, aurkezten diren behar berrien edo planifikatutakoaren gainean gerta daitezkeen aldaketan arabera.

Taldeak prestakuntzan egiten duen ahaleginaren zati bat harrera planekin bat dator. Historikoki, Erreka Taldearentzat oso garrantzitsua da pertsonen prestakuntza egokia jasotzea, bai taldeko edozein enpresatan lanean hasten direnean, bai lanpostuz aldatzen direnean.

Ematen den prestakuntzak lanpostua behar bezala betetzearekin zerikusia duten alderdi guztiak biltzen ditu, eta ez bakarrik alderdi teknikoak, baita bere kudeaketa sistema integratuko politika guztiak ere.

2024an, unibertsitateekin, Lanbide Heziketako eskolekin eta Teknologia Zentroekin egindako aliantzak indartu ditugu, Erreka Taldera talentua eta ezagutza erakartzeko.

Hona hemen Erreka Taldeko plantilla prestatzeko batez besteko orduen datuak:

| Prestakuntza orduak (h)<br>// Horas de formación (h)                 | 2024     | 2023     | Evolución<br>2024-2023<br>bilakaera |
|----------------------------------------------------------------------|----------|----------|-------------------------------------|
| Kategoria profesionalaren arabera //<br>Por categoría profesional    |          |          |                                     |
| Zuzeneko langileak<br>// Mano de obra directa                        | 1.743,50 | 2.085,00 | -%16,38                             |
| Zeharkako langileak //<br>Mano de obra indirecta                     | 2649,00  | 5.530,00 | -%52,10                             |
| Zuzendariak //<br>Puestos directivos                                 | 199,00   | 532,00   | -%62,59                             |
| GUZTIRA // total                                                     | 4.591,50 | 8.147,00 | -%43,64                             |
| Langileko batezbestekoa // horas<br>medias por personas trabajadoras | 9,83     | 17,67    |                                     |

Irisgarritasuna

Mugikortasun murriztua duten pertsonak ere sar daitezke Errekako instalazioetan.

Euskararen hizkuntza normalizazioa

Hasieratik, Erreka Taldea modu berezian sentsibilizatu da euskararekin eta euskal kulturarekin, eta lan egin du hala nahi duten pertsonak beren ama hizkuntzan lan egiteko aukera izan dezaten. 25 urte baino gehiago dira gure lehen euskara plana ezarri genuela, hizkuntza horren erabilera areagotzeko, gure pertsonen motibazioan eragiteko eta ezagutza handitzeko. Era berean, hemen gure inguruan garatzen diren hainbat ekimenetan parte hartzen dugu, eta kasu askotan ekimen sozial horien sustatzaileak ere bagara. Urrutira joan gabe, 2024an KORRIKArekin lankidetzan aritu gara, hots, bi urtean behin egiten den eta AEK erakundeak antolatzen duen euskararen erabileraren aldeko martxa aldarrikatzailearekin.



Nabarmentzekoa da ERREKAK hauek dituela: Hizkuntza kudeaketaren BIKAIN kalitate ziurtagiria (URREA maila), Eusko Jaurlaritzak emana, arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa normalizatzeko ahaleginaren goren maila egiaztatzen duena.

Euskara planetan egindako inbertsioaren bilakaera:

| Euskara planetako inbertsioa (negozio guztiak batera)//<br><i>Inversión en planes de euskera (conjunto de todos los negocios)</i> |  |          |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|----------|
| 2019                                                                                                                              |  | 80.416 € |
| 2020                                                                                                                              |  | 49.149 € |
| 2021                                                                                                                              |  | 59.186 € |
| 2022                                                                                                                              |  | 58.416 € |
| 2023                                                                                                                              |  | 67.171 € |
| 2024                                                                                                                              |  | 66.514 € |

## Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Erreka ez du bereizketarik egiten bere pertsonen artean, edozein dela ere beren lan harremana edo sexua, jatorria eta erlijioa; hala, lan, sustapen eta garapen aukera berdintasuna dute denek.

“Erreka lehiakorra, arina, malgua, osasungarria eta jasangarria” erronka estrategikoaren barruan, eta antolaketa kultura eraldatzeko helburuaren inguruan, 2024an, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana garatu da ERREKAn.

Alde batetik, ERREKAko gobernu organoek kooperatiba emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko eskakizun sozialetara egokitzeko interesa zuten, eta enpresa ehunaren zati handi baterako planteatzen diren betebeharrak beren gain hartzeko interesa zuten; bestetik, MONDRAGON KORPORAZIOAREN, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN eta beste erakunde batzuen lan legediak eta lan metodologiek berdintasunaren arloan ezarritako esparru estrategikoei erantzuteko interesa zegoen. Horrek guztiak, Kooperatiben Euskal Legetik eratorritako lege betekizunekin eta gizonen eta emakumeen presentzia orekatua eskatzen duen 15/2023 Enplegu Legearekin batera, Berdintasunerako PLAN hau definitzera eraman gaitu.

Planaren barnean egin direnak:

Planaren egituraren zehaztu ziren 3 ardatzetan lanean jarraitzea:

- Gobernu ona
- Pertsonen kudeaketa
- Gizartean duen eragina



Plan honetatik eratorri diren eta dagoeneko gauzatzen ari diren ekintzetako batzuk honako hauek izan dira:

- Kooperatibaren hedapen materialetan eta inguruko ekimenetan ERREKAko emakumea modu proaktiboan ikusaraztea.



Errekako lantaldea, Bilbon egin den WindEurope azokan.

- Berdintasunaren eraikuntzan gizonen parte hartze aktiboa eta konpromisoa sustatzea, Gizonduz Programaren moduko ekimenen bidez eskainitako sentsibilizazio ekintzetatik abiatuta.
- Berdintasunaren arloko adierazle edo agente taula bat identifikatzea, ERREKAko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko aldizkako reporting bat egiteko baliagarria izango dena.

Compliance dokumentuaren barruan, jazarpenari buruzko kapitulu bat dago. Zehazki, “ERREKAn indarkeria eta jazarpena prebenitzeko protokoloa”-ren helburua da Errekan pertsonen segurtasuna sendotzea, pertsona guztientzat leku bat duen eta balioa sortzeko elementu gisa daukan aniztasunean oinarritzen den erakunde baten alde eginez.

Protokoloa Errekako langile guztien duintasuna eta ongizatea bermatu ahal izateko beharretik sortzen da, eta Errekan parte hartzen duten pertsona horiek guztiek indarkeria fisiko edo psikologikoaren biktimen etika, berdintasuna eta defentsa sustatuko duten aseguruia dela zaintzen du.

## 8- Giza Eskubideak errespetatzea

Erreka Taldeak Giza Eskubideen Adierazpenaren funtsezko printzipioak aitortzen ditu, 1948ko Nazio Batuen definizioaren arabera, eta erreferentzia esparrua dira erakundearen jarduteko moduari dagokionez.

Horregatik, 2025ean, Giza Eskubideen Politika propioa garatuko dugu.

Compliance sistemaren kudeaketarako sortutako kanal etikoa politika horien edozein ez-betetze salatzeke eta ikertzeko komunikazio bidea da. (4. Eranskina).

2024an ez da landu Giza Eskubideak ez betetzearekin lotutako gairik.

Lantegietan zentratutako adingabeei dagokienez, egoera honako hau izan da 2024an:

|                                                                              | Espainia | Mexiko | Txekia |
|------------------------------------------------------------------------------|----------|--------|--------|
| < 18 urtetik beherako langileak<br><i>Personas trabajadoras &lt; 18 años</i> | 0        | 0      | 0      |

## 9- Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka

Compliancean jasotako kode etikoan, ustelkeriaren aurkako politika bat ezarri da, eta politika horrek zehazten du zer neurri hartu behar diren iruzurrezko ekintzak prebenitzeko, detektatzeko eta zigortzeko, bai eta Erreka Taldearen funtzioak eta bitartekoak erabiltzeko ere, administrazio organoetako langileen, zuzendarien edo parte hartzaileen onurarako, dela ekonomikoki, dela beste era batera. Kode etikoa Intraneten dago, eta langile guztiek eskura dezakete.

2024ko ekitaldian, Compliance Whistleblowing zuzentaraura egokitu zen, eta, horrela, ingurune etikoagoa sustatu da ERREKA legez kanpoko jokabideak salatzeak aukerak gaituz, eta, era berean, salatzailearen babesa bermatuz.

Erreka Taldeko kolektiboak eta bere izenean edo ordezkaritzan lan egiten duen edozein pertsonak edo erakundek ezin izango dio inolako diru edo balio handiko ondasun ordainketarik eskaini, egin, agindu edo baimendu, zuzenean edo zeharka, partikular, gobernu funtzionario, alderdi politiko, ordezkari, kide edo hautagairen bati, Erreka Taldeari negozio, mesede, interes edo abantaila desonestaren bat emateko, lortzeko edo horri eusteko.

Debeku horretan sartzen da Erreka Taldeari lehentasunezko baldintzekin mesede egiteko edozein erabaki edo Taldeari abantaila desonesta eman diezaiokeen informazio konfidentzial eta pribatua emateko edozein erabaki.

Ustelkeriaren aurkako politika funtsezkoa da Jokabide Kodean jasotako printzipio etikoetan eta jokabide eta jarduera arauetan. Harrera planetan, Errekan parte hartuko duten pertsona guztiei Kode Etikoaren edukien berri ematen zaie. Erreka Taldeak Zaintza Batzordea eta dagozkion kanpoko auditoriak ditu, kapitalak zuritzeak arriskua prebenitzeko elementu gisa.

2024an ez da ustelkeriarekin, eroskeriarekin edo kapital zuriketarekin lotutako gairik landu.

Barne gatazkei dagokienez, Erreka Taldeko langile guztiek erabil dezakete kanal etikoa, helbide elektroniko honen bidez ([kanaletiko@erreka.com](mailto:kanaletiko@erreka.com)). Komunikazio kanal hori lehentasun gorenekoa da hartzailearentzat, Kontseilu Errektoreak alde aurretik izendatutako talde batekin salaketaren kudeaketa berehala hasteko, eta ezarritako araudian oinarrituta hasiko du prozedura. 2024an kasu bakarra tratatu da, eta barne protokoloari jarraituz ebatzi da.

Ustelkeriaren aurkako prozedurei buruzko prestakuntza espezifikoa jaso duten pertsonen kopurua:

| Ustelkeriaren aurkako politiketan eta prozeduretan gaituta dauden pertsonen kopurua, kategoria profesionalaren arabera // <i>Número de personas capacitadas en políticas y procedimientos anticorrupción por categoría ocupacional</i> | 2024 | 2023 |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|
|                                                                                                                                                                                                                                        |      |      |
| Zuzendariak // <i>Puestos directivos</i>                                                                                                                                                                                               | -    | 2    |
| Zeharkako langileak // <i>Mano de obra indirecta</i>                                                                                                                                                                                   | 7    | 3    |
| Zuzeneko langileak // <i>Mano de obra directa</i>                                                                                                                                                                                      | 9    | 9    |
| GUZTIRA // <i>Total</i>                                                                                                                                                                                                                | 16   | 14   |

Irudia eta ospea

Irudiak eta ospeak lotura estua dute ERREKAko langileen, kooperatiben eta, oro har, gizartearen arteko harremanarekin. Horregatik, ERREKAko langile guztiek ahalik eta arreta handiena jarri behar dute beren lanbide jarduera guztietan irudi eta ospe korporatiboa zaintzeko.

Langileek Korporazioaren interesei edo izen onari kalte egin diezaiokeen edozein jarduera saihestu behar dute; bide beretik, kooperatibek, enpresa hornitzaileek eta enpresa laguntzaileek berori errespetatzen dutela zaindu beharko dute.

Langileek arreta berezia jarri behar dute edozein esku hartze publikotan, eta, horretarako, beharrezkoa den baimena izan behar dute komunikabideen aurrean aritu, eta jardunaldi profesionaletan edo mintegietan parte hartzeko, bai eta zabalkunde publikoa izan dezakeen beste edozein jardunalditan parte hartzeko ere, baldin eta ERREKAko langile gisa agertzen badira.

Gobernantza kooperatiboa

Aipatutako Kode Etikoaz gain, Errekako Gobernantza Kooperatiboaren ereduak mekanismoak eta kontrolak ditu, barrukoak eta kanpokoak. Horietan zehazten eta ziurtatzen da “gobernantza ona”-ren helburuen irismena, eta bermatzen da printzipio kooperatiboen jarraipena.

Horrekin lotuta, indarrean dagoen esparru estrategikoan, honako ekintza hauetan aritu gara 2024an:

- Gobernu korporatibo eta kooperatibo onaren definizioa
- Erabakiak hartzeko fluxu argia eta arina ezartzea, erabakiak hartzeko eremuak eta mugak definituta
- Zuzendaritza eta kudeaketa organoen arteko lerrokatzea sustatzea

Hona hemen 2024an Errekako gobernantza organoetan parte hartu duten emakumeen eta gizonen kopuruari buruzko datuak:

| Gobernantza organoetako pertsonen kopurua, generoaren arabera // <i>Número de personas en órganos de gobernanza por género</i> | Emakumeak // <i>Mujeres</i> |               | Gizonak // <i>Hombres</i> |               |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|---------------|---------------------------|---------------|
| Zuzendaritza Kontseilua // <i>Consejo de Dirección</i>                                                                         | 2                           | %20,00        | 8                         | %80,00        |
| Kontseilu Errektorea// <i>Consejo Rector</i>                                                                                   | 3                           | %37,50        | 5                         | %62,50        |
| Kontseilu Soziala <i>Consejo Social</i>                                                                                        | 3                           | %33,33        | 6                         | %66,67        |
| <b>GUZTIRA // Total</b>                                                                                                        | <b>8</b>                    | <b>%29,63</b> | <b>19</b>                 | <b>%70,37</b> |

## 10- Sozietateari buruzko informazioa

Matz Errekak, bere historian zehar, proiektu sozial sendo gisa finkatzea lortu du, bai bere kolektiboarekin duen konpromisoaren bidez, bai inguruarekin duen inplikazioaren bidez. Bazkideek egindako ahalegin eta ekarpenei esker eraiki da enpresa, guztion ongia norbanakoaren beharren gainetik dagoen uste sendoarekin.

Matz Erreka egungo Mondragon Korporazioaren barruan dago hasieratik, 1969an Caja Laboral Popular – Euskadiko Kutxarekin elkartu zenetik. Bere enpresa filosofia bere Balio Korporatiboetan jasota dago: lankidetzaz, partaidetzaz, gizarte erantzukizuna eta berrikuntza.

Jakina denez, Mondragonek nazioarteko merkatuetan lehiatzen den enpresa erakunde baten oinarritzko helburuak biltzen ditu, eta, horretarako, bere sozietate antolaketan metodo demokratikoak erabiltzen ditu, enplegua sortzen du, langileen giza sustapena eta sustapen profesionala egiten du, eta bere ingurune soziala garatzeko konpromisoa hartzen du.

Komunitate garapena

Erreka Taldeak konpromisoa du bere lurraldeko komunitate garapenarekin, eta horretan laguntzen du, batez ere eraldaketa sozialerako mekanismoekin.

2024an, eraldaketa sozialerako Errekan esleitutako guztizko kopurua 153.864 eurokoa izan da, honela banatuta:

| Arloa // Área                                                                                                      | Kantitatea//<br>Cantidad (€) |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|
| Kooperatiba arteko Hezkuntza eta Sustapen Funtsa // <i>Fondo de Educación y Promoción Intercooperativa</i>         | 33.865 €                     |
| Organoentzako prestakuntza // <i>Formación sobre cooperativismo</i>                                                | 13.485 €                     |
| Euskara Plana // <i>Plan de euskera</i>                                                                            | 20.000 €                     |
| Banaketa soziala eta 2024rako beste proiektu batzuk // <i>Banaketa orokorra eta beste proiektu batzuk 2024rako</i> | 86.514 €                     |

Kooperatiba arteko Hezkuntza eta Sustapen Funttsaren zati bat inguruko hainbat kolektiboren funts sozialetarako ekarpenetara bideratzen da. Hau da ekarpen horien bilakaera azken urteotan:

| Komunitateari egindako ekarpenak// <i>Aportaciones a la comunidad</i>                                                                                 | 2024        | 2023     | 2022     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|----------|----------|
| Diruzko ekarpena inguruko gizarte elkarteei (Euskal Autonomia Erkidegoa) <i>Aportación monetaria a asociaciones sociales del entorno (País Vasco)</i> | 26.743,36 € | 70.700 € | 29.700 € |

Zehazki, hauek dira 2024an egindako ekarpen batzuk:

| ERAKUNDEA // Entidad                     | EKARPENA (€) // Aportación en € |
|------------------------------------------|---------------------------------|
| AIASTUI TXIRRINDULARI ELKARTEA           | 1.000 €                         |
| ALCER GIPUZKOA                           | 1.500 €                         |
| ANGIOZARKO ARBIASKA GURASO ELKARTEA      | 2.000 €                         |
| ANTZUOLA KIROL ELKARTEA                  | 1.000 €                         |
| ANTZUOLAKO ODOL EMAILEAK                 | 500 €                           |
| ANTZUOLAKO UDALA                         | 11.896,37 €                     |
| ANTZUOLAKO ZORTZI MILAK KIROL KLUBA      | 500 €                           |
| ARIZNOA ELKARTEA (BERGARA)               | 500 €                           |
| BERGARAKO KE ESKUBALOIA                  | 500 €                           |
| BERGARAKO SHOTOKAN                       | 1.000 €                         |
| BIHOTZEZ ELKARTEA                        | 200 €                           |
| BIHOTZEZ ELKARTEA                        | 110,47 €                        |
| IRAIN MOTO KIROL KLUBA                   | 500 €                           |
| IRUKURUTZETA FUNDAZIOA                   | 500 €                           |
| KILOMETROAK KULTUR ELKARTEA              | 1.036,52 €                      |
| KUKUBASO BERTAKO BASOEN ELKARTEA         | 500 €                           |
| MOVEMBER GARA/ CIC BioGUNE               | 1.000 €                         |
| NDANK NDANK                              | 500 €                           |
| OLALDE EUSKAL KIROLAK                    | 1.000 €                         |
| PAUSOKA GURASO ELKARTEA (ANTZUOLA)       | 1.000 €                         |
| EKARPENAK, GUZTIRA // TOTAL APORTACIONES | 26.743,36 €                     |

Azpikontratazioa eta enpresa hornitzaileak

Urtean zehar, PLASTICS negozioko hornitzaile garrantzitsuenetako batzuekin partekatu dugu HORNITZAILEEN ESKULIBURUA v03 dokumentua. Dokumentu horrek, hain zuzen, gizarte eta ingurumen baldintzak biltzen ditu, portaera printzipio etiko batzuei aipamen berezia eginez, eta hornitzaileak hautatzeko fasean baldintza berdinetan aritzeko asmoz, ISO 14001 eta ISO 45001 ziurtagirien ezarpena balioetsiz.

Taula honetan, Euskal Herriko lantegietan tokiko hornitzaileei egindako gastuari buruzko informazioa jaso dugu.

| Tokiko hornitzaileei egindako gastuaren %<br><i>% de gasto en proveedores locales</i>                           | 2024   | 2023   | 2022   |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------|--------|--------|
| Tokiko hornitzaileen kopurua<br><i>Número de proveedores locales</i>                                            | 459    | 451    | 452    |
| Tokiko hornitzaileei egindako gastua (guztiarekiko %)<br><i>Gasto en proveedores locales (% sobre el total)</i> | %51,62 | %51,23 | %45,00 |

Erakutsitako datu guztiak negozio guztien eta zerbitzu zentralen batura dira.

Hurbileko erosketa egitea oso garrantzitsua dela jakin badakigun arren, bai ingurumen kontuengatik, bai inguruaren garapen ekonomikoarekiko konpromisoagatik, 2024an ez dugu tokiko hornitzaile berririk txertatu.

Taula honetan, Mexikoko lantegian tokiko hornitzaileetan egindako gastuari buruzko informazioa jaso dugu.

| Tokiko hornitzaileetan egindako gastua//<br><i>Gasto en proveedores locales</i>                                      | 2024 | 2023 | 2022 |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| Tokiko hornitzaile kopurua<br><i>// Número de empresas proveedoras locales</i>                                       | 17   | 16   | 18   |
| Tokiko hornitzaileetan egindako gastua (guztiarekiko %) //<br><i>Gasto en proveedores locales (% sobre el total)</i> | %29  | %25  | %22  |

Taula honetan, Txekiako lantegian tokiko hornitzaileetan egindako gastuari buruzko informazioa jaso dugu.

| Tokiko hornitzaileetan egindako gastua //<br>Gasto en proveedores locales                                  | 2024 | 2023 | 2022 |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|------|------|
| Tokiko hornitzaile kopurua<br>Número de empresas proveedoras locales                                       | 10   | 10   | 7    |
| Tokiko hornitzaileetan egindako gastua (guztiarekiko %)<br>Gasto en proveedores locales (% sobre el total) | %25  | %20  | %23  |

Kontsumitzaileen segurtasuna eta osasuna

Erreka Taldearen produktuak, Sarbide Automatikoen Negozioan, azken kontsumitzaileetara iristen dira; izan ere, horiek saltokietan eta eraikin publikoetan instalatzen dira, besteak beste. Osagaien fabrikatzaile gisa, EE markari lotutako Europako legeria guztia betetzen eta egiaztatzen dugu.

11- Informazio fiskala

Hauek dira 2024an Erreka Taldeak izandako emaitzak, ordaindutako emaitzen gaineko zergei buruzko informazio fiskala eta dirulaguntza publikoak:

| Emaitzak, herrialdearen arabera (eurotan) //<br>Resultados por país (en euros)      | 2024           | 2023           |
|-------------------------------------------------------------------------------------|----------------|----------------|
| MATZ ERREKA, S. COOP.                                                               | 947.889,00 €   | 2.259.396,00 € |
| ERREKA-MEX, KAPITAL ALDAKORREKO SA                                                  | 325.028,00 €   | 535.053,00 €   |
| ERREKA-PLAST, ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZietatea (TXEKIA)                             | -251.684,00 €  | -361.069,00 €  |
| GUZTIRA // TOTAL                                                                    | 1.021.233,00 € | 2.433.381,00 € |
| Zergak, herrialdearen arabera (eurotan) //<br>Impuestos por país (en euros)         | 2024           | 2023           |
| MATZ ERREKA, S. COOP.                                                               | 4.910,00 €     | 21.787,00 €    |
| ERREKA-MEX, KAPITAL ALDAKORREKO SA                                                  | 167.962,00 €   | 258.778,00 €   |
| ERREKA-PLAST, ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZietatea (TXEKIA)                             | 0,00 €         | 0,00 €         |
| GUZTIRA // TOTAL                                                                    | 172.872,00 €   | 280.565,00 €   |
| Herrialde bakoitzeko dirulaguntzak (eurotan) //<br>Subvenciones por país (en euros) | 2024           | 2023           |
| MATZ ERREKA, S. COOP.                                                               | 1.096.436,00 € | 1.285.965,00 € |
| ERREKA-MEX, KAPITAL ALDAKORREKO SA                                                  | 0,00 €         | 0,00 €         |
| ERREKA-PLAST, ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZietatea (TXEKIA)                             | 0,00 €         | 0,00 €         |
| GUZTIRA // TOTAL                                                                    | 1.096.436,00 € | 1.285.965,00 € |

MATZ ERREKA, S. Coop.eko Kontseilu Errektoreko kideek, 2025eko martxoaren 10ean, MATZ ERREKA Taldeari buruzko “2024ko ekitaldiko informazio ez-finantzarioaren egoera” idatzi zuten, eta horiek guztiek orri honetan sinatu zuten, 57 orrialde eta 4 eranskin dituen dokumentu horrekin ados daudela adierazteko. Era berean, MATZ ERREKA, S. Coop.eko lehendakariak eta Kontseilu Errektoreko idazkariak aipatutako agiriaren orri bakoitzean sinatu dute, identifikatzeko.

|                                                 |                                                  |
|-------------------------------------------------|--------------------------------------------------|
| Izenpea:                                        | Izenpea:                                         |
| Joana Ibarretxe andrea<br>(Kargua) Lehendakaria | Ainhoa Egaña andrea<br>(Kargua) Lehendakariordea |

|                                              |                                          |
|----------------------------------------------|------------------------------------------|
| Izenpea:                                     | Izenpea:                                 |
| Gorka Ochandiano jauna<br>(Kargua) Idazkaria | Blanca Lasheras andrea<br>(Kargua) Kidea |

|                                         |                                     |
|-----------------------------------------|-------------------------------------|
| Izenpea:                                | Izenpea:                            |
| Ibon Elguezabal jauna<br>(Kargua) Kidea | David Gordo jauna<br>(Kargua) Kidea |

|                                      |                                         |
|--------------------------------------|-----------------------------------------|
| Izenpea:                             | Izenpea:                                |
| Asier Alcain jauna<br>(Kargua) Kidea | Asier Intxausti jauna<br>(Kargua) Kidea |

## 12- Eranskinak

### I. Eranskina.- Harremanetarako datuak

|                   |                                                                        |
|-------------------|------------------------------------------------------------------------|
| Izena             | Matz Erreka, S. Coop.                                                  |
| Helbidea          | Ibarreta, z/g,<br>20577 Antzuola – Gipuzkoa (Euskal Herria) - Espainia |
| Telefono zenbakia | + 34 943 78 60 09                                                      |
| Webgunea          | <a href="https://www.erreka.com/">https://www.erreka.com/</a>          |

### II. Eranskina.- Taldeko filialak

| Bateratze perimetroa                                           | SOZietatea                                      | %    | Egoitza                               | Ekintza |
|----------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|------|---------------------------------------|---------|
|                                                                | Erreka Mex., Kapital Aldakorreko SA             | %100 | Santiago de Queretaro (Mexiko)        | (1)     |
|                                                                | Erreka- Plast, Erantzukizun Mugatuko Sozietatea | %100 | Olomouc (Txekia Errepublika)          | (2)     |
| <b>BATERATZE PERIMETROTIK KANPO GERATZEN DIREN SOZietATEAK</b> |                                                 |      |                                       |         |
| Bateratze perimetrotik kanpo dauden sozietateak                | Auto doors & shopfronts U.K Limited             | %100 | Londres (Ingalaterra)                 | (4)     |
|                                                                | Erreka Dominikarra, SRL                         | %100 | Santo Domingo (Dominikar Errepublika) | (3)     |
|                                                                | Erreka Kolonbia SAS                             | %100 | Bogota (Kolonbiako Errepublika)       | (3)     |
|                                                                | Erreka-Zhuhai, Co., Ltd.                        | %51  | Zhuhai, Guandong probintzia (Txina)   | (1)     |

- (1) Hule, plastiko, metal, antzekoen edo/eta beste edozein materialen mota guztietako zatien ekipo, material eta osagaiak fabrikatzea eta merkaturatzea.
- (2) Bere helburu soziala da plastiko eta bulkanizazioko produktuak fabrikatzea, handizkariet saltzea eta zerbitzuen salerosketan bitartekaritza egitea.
- (3) Informazioaren eta komunikazioen teknologietarako ekipoen handizkako merkataritza.
- (4) Ate automatikoen sektorean elementuak eta ekipamenduak instalatzea, saltzea eta horien mantentze lana egitea.

### III. Eranskina- 11/2018 Legearen edukien taula

| 11/2018 Legearen edukiak informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan |                                                                                                                                                                                                                                            | Estandarra                                                                                                                | Txosteneko erreferentzia kapitulua | Oharrak                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------|-------------------------------------------------------|
| NEGOZIO EREDUA                                                                  |                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                           |                                    |                                                       |
| Taldearen negozio ereduaren deskribapena                                        | Taldearen negozio ereduaren deskribapen laburra (bere enpresa ingurunea, antolaketa eta egitura, jarduten duen merkatuak, helburuak eta estrategiak, eta etorkizuneko bilakaeran eragina izan dezaketen faktore eta joera nagusiak barne). | GRI 2-1: Erakunde xehetasunak: legezko izena, forma juridikoa, egoitza nagusiaren kokapena eta jarduten duen herrialdeak. | I. eta II. eranskinak              | Harremanetarako datuak<br>Taldekako sozietateak       |
|                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                            | GRI 2-2: Jasangarritasun txostenen aurkezpenean jasotako erakundeak                                                       | 1. kapitulua                       | Aurkezpen gutuna                                      |
|                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                            | GRI 2-6: Jarduerak, balio katea eta beste harreman komertzial batzuk                                                      | 2. kapitulua                       | Aipamen historiko laburra<br>Negozioak eta antolaketa |
|                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                            | GRI 2-9: Gobernantza eta osaera egitura                                                                                   | 2. kapitulua                       | Negozioak eta antolaketa<br>Gobernantza kooperatiboa  |
|                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                            | GRI 2-11: Gobernu organo gorenko lehendakaria                                                                             | 1. kapitulua                       | Aurkezpen gutuna                                      |
|                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                            | GRI 2-12: Gobernu organo gorenaren funtzioa, inpaktuen kudeaketa gainbegiratzeko                                          | 5. kapitulua                       | Materialtasunaren analisisa                           |

| 11/2018 Legearen edukiak informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan |  | Estandarra                                                                       | Txosteneko erreferentzia kapitulua | Oharrak                                                                    |
|---------------------------------------------------------------------------------|--|----------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|
|                                                                                 |  | GRI 2-14: Gobernu organo gorenaren funtzioa, jasangarritasun txostena aurkezteko | 1. kapitulua<br>5. kapitulua       | Aurkezpen gutuna<br>Materialtasunaren analisia                             |
|                                                                                 |  | GRI 2-16: Kezka kritikoen komunikazioa                                           | 5. kapitulua                       | Materialtasunaren analisia                                                 |
|                                                                                 |  | GRI 2-22: Garapen jasangarriko estrategiari buruzko adierazpena                  | 3. kapitulua<br>5. kapitulua       | Erronka estrategikoak eta arriskuen analisia<br>Materialtasunaren analisia |
|                                                                                 |  | GRI 2-23: Konpromisoak eta politikak                                             | 2. kapitulua<br>5. kapitulua       | Misioa, bisioa eta balioak<br>Materialtasunaren analisia                   |
|                                                                                 |  | GRI 2-29: Interes taldeek parte hartzeko ikuspegia                               | 5. kapitulua                       | Materialtasunaren analisia                                                 |

| 11/2018 Legearen edukiak informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan |                                                                                                                                                 | Estandarra                                   | Txosteneko erreferentzia kapitulua | Oharrak                                                   |
|---------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------|------------------------------------|-----------------------------------------------------------|
| INGURUMEN GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA                                             |                                                                                                                                                 |                                              |                                    |                                                           |
| Politikak                                                                       | Taldeak aplikatzen dituen politikak, hauek barne hartuta: arriskuak eta eragin nabarmenak identifikatu, ebaluatu, prebenitu eta arintzeko behar | GRI 2-23: Konpromisoak eta politikak         | 3. kapitulua<br>6. kapitulua       | Erronka estrategikoak eta arriskuen analisia<br>ISO 14001 |
|                                                                                 |                                                                                                                                                 | GRI 2-24: Konpromisoak eta politikak sartzea | 4. kapitulua                       | Kudeaketa eredua                                          |

| 11/2018 Legearen edukiak informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | Estandarra                                                                                      | Txosteneko erreferentzia kapitulua | Oharrak                                                                                                 |
